

martin
ugalde
kultur
parkea

15


urtez euskaigintzaren eta
kulturgintzaren elkargune



m a r t i n
u g a l d e
k u l t u r
p a r k e a

BEHAR GUZTIAK ASETZEKO

Komunikazioa
Banaketa
Itzulpenak
Dei zentroa
Aholkularitza




bidera
zerbitzuak



berria
taldea

www.bidera.eus • 943-303 555 / 607-787 304 • bidera@bidera.eus



Kultur Parkea: kultur industriaren berrigunea



Martin Ugalde kultur parkeak hamabost urte bete ditu. Hainbat eragile eta norbanakoren apustu eta ilusioaren emaitza izan zen euskalgintza eta kulturgintza dinamizatzeko sortutako espazio berri hori, orain dela hogeitaz pentsatzen hasi eta 2002ko ekainean gauzatu zena.

Helburuen artean zeuden erakundeei beren egunerokoa gauzatzeko azpiegitura sendo eta modernoak eskaintzea, sinergietarako eta proiektu berriak garatzeko aukera ematea, eta indarrak batuz euskal kulturaren industriari ikusgarritasuna ematea.

Hamabost urteko ibilbide oparoaren ostean, erakundeen eta langileen ekimenez, asmo horietako asko bete egin dira. Gaur egun, diziplina anitzeko 26 erakundek dute egoitza parkean, eta 200 langile baino gehiago aritzen dira bertan beren egunerokoa. Kultur parkeak, eremu profesionalaz harago, proiektu kolektibo eta pertsonalak garatzeko abagunea ere ematen du. Leku atsegina eta dinamiko bat sortu dugu guztion artean, kultura eta berrikuntza ardatz, euskaratik lanean, eta euskaraz.

Etorkizunera begira dago parkea, sinetsita hainbat direla kulturgunearen aukerak. Kulturak egiten baikaitu herri.

Ateak zabalik ditugu. Aurrera. ■■■



Euskara eta euskal kulturgintza indartzeko, eraginkorrak izateko, garatzeko. Idelak botaz, eztabaidatuz, elkarlana sustatuz eta sinergiak sortuz. Batzuen eta besteen indarrak bilduz.

Bada, Martin Ugalde Kultur Parkeko indar metaketa horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak ere jarraituko du bere aletxoak jartzen. Hori baita gure kultura eta hizkuntza hedatzeko bidea.



martin ugalde kultur parkea

Euskalgintzaren elkargunea

■ Sortu zenetik euskalgintzaren eta euskaltzaleen topagune izateko asmo bizia izan du Martin Ugalde Kultur Parkeak. Kultur sorkuntza, kultur industria eta euskalgintza xede duten hainbat proiektu sortu dira bertan. Eragileen arteko sinergia berriak lortzeko bidean, lanean dihardu egun, eta erronka berriei aurre egiteko indarra biltzen aritu da azken urteotan.

Ez dira berehalakoan betetzen hamabost urte. Eta ez da erraza izaten hain osasun onean konplitzen urteak. Martin Ugalde Kultur Parkeak, ordea, hasierako indar berekin jarraitzen du lanean: euskalgintza eta euskal kultura sustatzeko gogotsu. Malkartsua izan da bi-

dea, baina, ongi heldu dira urteurrenara: inoiz baino elkarte gehiago daude parkean, eta dagoeneko hasiak dira proiektu berriak ere martxan. Helburua, berriz, hasierako berbera da: euskal kulturaren eremuko enpresa, erakunde eta elkarteak inguru berean bilduz, euskalgintza eta euskal kulturgintza indartzea.

Euskaldunon Egunkaria-k, Elkar fundazioak eta Lizarra Grafikak enpresak jarri zuten parkearen ernamuina, eta egun 26 enpresa, eragile eta proiektu ari dira bertatik lanean. «Aldarrikatu egin behar dugu kultura industria», azpimarratu du Joxe Mari Sors Elkar fundazioko lehendakariak. Ideia horri heldu zioten parkearen sortzaileek hasieratik; sorkuntzatik errentagarritasuna ateratzea. «Ez gara ari errentagarritasun ekonomikoaz», ohartarazi du Sorsek, «errentagarritasuna ere bada euskaldunok herri egiten gaituen hizkuntzari balioa ematea». Horregatik, ezinbestekotzat jo du kultura industria garatzea, euskalgintza eta euskal kultura gizartearen erdigunean jartzeko.

Bat egin du Joanmari Larrarte parkeko kudeatzaile ohiak ere: «Zentralitatea eman behar diogu gai horri, eta guztiok batera, leku beretik eraginda, are indartsuagoak izango gara». Izan ere, Martin Ugalde Kultur Parkeak ahalbidetu zuen garai hartan Euskal Herriko hamaika txokotan barreiatuta zeuden elkarte, enpresa eta eragileak leku bakar batean biltzea. Sakabanatuta txiki izatearen konplexua bazegoen, baina, elkartuta giharra ateratzeko eta apustu handiagoak egiteko aukera ematen du parkeak: «Guztiok leku berean topo egiteak aukera ematen digu esateko bagarela nor».

Azpiegituratik harago. Garai hartan, arnasmune izan zen parkea, eta berehala bildu ziren hainbat eta hainbat enpresa. Azpiegitura egokia eta eskuragarria eskaintzea izan da beti parkeko kudeatzaleen asmoa, eta horrela, euskalgintzak eta kulturgintzak merezi duen tratua eskaintzea. Ez da, ordea, helburu bakarra. Leku berean egoteak

Martin Ugalde: izena eta izana

Langile nekaezina, euskaltzale amorratua, euskalgintzaren sustatzailea... hamaika eratarazal liteke Martin Ugalde zenaren izaera, baina, alderdi horiek guztiak bete-betean islatzen dira izen bera daraman kultur parkean. Hain justu, hark jarri zuen proiektuaren lehen harria 2000. urtean.

1921ean jaio zen Andoainen, eta Gerra Zibilean joan zen erbestera. Urte luzez egon zen kanpoan, baina, inoiz ez zuen bere sorterrira ahaztu; zegoen lekuan zegoela idazle, kazetari eta ekintzaile lanetan aritu zen. Diktaduraren ostean, Eusko Jaurlaritzan aritu zen lanean, Euskarazko Arazoetarako zuzendari nagusi izendatu zuten, eta politikan ere aritu zen zenbait urtetan.

Euskara izan zen haren iparorratza, eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren sustatzaile nagusietako bat ere izan zen. Bertako lehendakari izendatu zuten, eta ohorezko lehendakari beranduago. Azken urteetan parkearen proiektua ilusioz jarraitu zuen, zenbait hamarkada lehenago beharrez aritu zen Laborde Anaiei fabrika euskalgintzaren topagune bihurtuko zelako. Haren izena eta izana, ordea, bizi-bizirik dago oraino.



aukera eskaintzen du elkar ezagutzeko, proiektu berriak sortzeko eta sinergia berriak egiteko. Horren adibide, parketik bertatik sortu dira elkarlanean egindako hainbat egitasmo; besteak beste Irrien Lagunak, Bizipoza proiektua, Bai Euskarari ziurtagiria, Gislán kooperatiba...

Euskalgintza bizirik dagoela erakusten du parkeak, eta, horretarako, lantokia ere bizi mantentzen dute bertako 200 langileek. Batzuek, enpresan bertan etengabeko berrikuntza prozesuak egiten dituzte; besteek, berriz, bizia ematen diote guneari bertako ekitaldi eta jardue-

retan parte hartuz. Martin Ugalde ez baita lantoki soil bat, ez baititu parke teknologikoen ohiko joerak.

«Zenbat industria parke daude Euskal Herrian? Askok. Orduan, zergatik ez jarri indarra kultur parke bat biziartzen?», ohartarazi du Sorsek. Bide horretan, lanean dihardu hamabost urteren ostean parkeko komunitateak. Euskal kultura eta euskalgintza erdigunean ezarriko dituen proiektuak sustatzea da xedea, elkartuta helburu handiak lor baitaitezke.

Urte askotarako Martin Ugalde Kultur Parkea!

*Mila esker urte guzti hauetan
euskararen asnargune izateagatik.*

***Euskaraz lan, ikasi,
informatu... eta bizi!***



Joanmari Larrarte

Martin Ugalde Kultur Parkearen sortzailea

«Argi genuen
euskalgintzak
erakutsi behar
zuela giharra»

Hamabost urtean hamaika bizipen izan dituzte Martin Ugalde Kultur Parkean Joanmari Larrartek eta Joxe Mari Sorsek. Larrartek parkeko kudeatzaile gisa lan egin zuen lehen urte horietan; Sorsek, berriz, parkeko bazkide gisa egin zituen ekarpenak. Erronka handiari heldu zioten orduan: euskalgintza eta kulturgintza leku berean batzea eta sinergiak bultzatzea. Bidean oztopo ugari egin behar izan diete aurre.

Jon Urbe / Argazki Press

IKASTETXE ETA BULEGOETAKO HORNIKUNTZA OSOA



Ikasi
group



Juintxiki Industrialdea 11-12 zkiak | 20720 AZKOITA - Gipuzkoa | Tel: 943 85 70 44 - 943 85 70 41 | Faxa: 943 85 36 33

E-posta: mkt@ikasi.eus | www.ikasi.eus

Joxe Mari Sors

Martin Ugalde Kultur Parkearen sortzailea

Konturatzerako, hamabost urte bete ditu Martin Ugalde Kultur Parkeak. Ordutik parkeko errailetan lanean aritu dira Joanmari Larrarte eta Joxe Mari Sors. Urte horien ibilbideaz hitz egin dute; nostalgiaz begiratu dute atzera eta ilusioz hitz egin dute etorkizuneko erronkei buruz.

Gogotsu ekin zenioten Martin Ugalde Kultur Parkearen proiektuari, eta erantzun handia jaso zuen asmoak.

JOANMARI LARRARTE. Garai hartan kulturgintzan eta euskalgintzan ari ziren eragile eta enpresa askoren egoera prekarioa zen, eta parkeak eskaintzen zuen leku duin bat, eta elkarren artean sinergiak egiteko aukera. Hasieratik izan genuen harrera ona.

JOXE MARI SORS. Gainera ikusgarri bilakatzen gintuen! Zenbat enpresa daude euskalgintzan? Pentsa dezakegu gutxi garela, baina begira hemen zenbat bildu garen. Kontua da bakoitza bere lekuan egonda eta horrelako baldintza prekarioetan, ez zirela ikusgai. Argi genuen euskal kulturak giharra erakutsi behar zuela. **Urtebetera, ordea, kolpe latza jaso zenuten: Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera.**

J. M. S. Alde batetik, eragin handia izan zuen *Egunkaria* parkeko sustatzaile nagusietako bat zelako eta kalte ekonomikoak ekarri zituelako. Baina, gainera, parkea ere itxi nahi izan zuten, eta lortu

ez bazuten ere, argi geratu zen bidea ongi egiten ari ginela: Madril en ez zitzairen interesatzen euskalgintzako eragileok indarra hartzen hastea.

J. M. L. Ez zuten parkea itxi, baina, baldintzatu egin zuten garapena. Martin Ugaldek espazioak eskaintzeaz gain, eragileen arteko indar metaketa sustatu nahi du, eta bide hori baldintzatu zuten bete-betean. Orain, ari gara horri buelta ematen pixkanaka, eta gakoa izango da kultura gizar-tearen erdigunean jartzea.

J. M. S. Gure poz handiena da bide onean egin dugula lana, eta frustrazio txikia, berriz, hasierako indarrekin jarraitzea oztopatu zigitela urte horietan zehar.

J. M. L. Gogoratu behar dugu hala ere, parkearen aurka etorri zirenean hemengo enpresek ez zutela alde egin. Hori sekulakoa izan zen, jendeak ulertu zuen elkarrekin jarraitzeko unea zela.

Berria sortu zen ondoren. Nolakoa izan zen hasiera?

J. M. L. Ilusioz beteta geunden. Euskal Herriak eman zuen erantzuna sekulakoa izan zen, eta *Berria*-k aurrera egin ahal izan zuen. Parkea orduan hasi zen biziberritzen.

J. M. S. *Berria* izan zen *Euskaldunon Egunkaria*ren birfundazio oso on bat, eta jendearen babesa ere oso handia izan zen. Hainbeste izan zen elkartasun erakustaldia, ezen parkea bera ere itxi nahi izan baitzuten.

J. M. L. Berehala ulertu genuen herri gisa desegin nahi gintuztela, balio handiengan min eginez: euskaran eta euskal kulturaren. Baxu egon gara urte batzuetan, eta orain ari gara 2003ko izpiritu hori berreskuratzen.

Egoera iraultzea lortu da, berraz?

J. M. L. Proiektu asko ari dira parketik lanean, eta garapena nabarmena da. Heldu beharreko erronka izango da euskal kulturari mezezi duen zentralitatea ematea. Parkeak bide horretan lagunduko du, dinamizazio horretan parte hartu beharko du. Bertako eragileon arteko harremanak sustatu behar ditugu orain.

J. M. S. Badakigu bidea luzea dela, baina apurka lortuko dugu.

Egindako lana, ordea, ez da debalde izan, eta jaso izan duzue aitortza. Besteak beste, 2013an Korrika bertatik hasi zen.

J. M. L. Noski, zerbaiten seinale da hori. Horrelako ekintzek berres-tuten dute kultur parkean ez dugula sinisten guk soilik. Kanpotik ere keinu horiek jasotzeak poz handia ematen digu.

Eta zeintzuk izango dira etorkizunerako erronkak?


J. M. L. Zerbitzu gehiago eskaintzea, kultur eskaintza zabaltzea eta parkeko eragileen arteko sinergiak bultzatzea.

J. M. S. Nahi dugu jendea eroso sentitzea, harreman estuak egitea eta ikusgarritasuna izatea.



Gipuzkoako Odol Emaileak
Donantes de Sangre de Gipuzkoa

**Eskertzak Martin Ugalde parkeko langileoi
zuen odolagatik!**



Parkeko hormek gordetzen dutena

 Martin Ugalde Kultur Parkea Laborde anaien barauts fabrika izan zen joan den mendean. Luis Tolosak diseinatu zituen eraikinak 1928an, eta, 2000. urtean, monumentu izendatu zituen Eusko Jaurlaritzak.

Kultur transmisioa da Martin Ugalde parkeko zutoin nagusietako bat, eta, hain zuzen ere, balio arkitektoniko handia duten bi eraikinek osatzen dute gunea. Gaur egun, lau eraikin daude parkean, eta Eusko Jaurlaritzak horietako bi izendatu zituen monumentu 2000. urtean. Hormetan igarri da Luis Tolosa diseinatzailearen arrazionaltasuna, eta eraikinek ondo gordea dute XX. mende hasierako estilo arkitektoniko nagusiaren kutsua.

Laborde anaien eraikinetan bi dira ezagunenak: bata, parkearen hasieran dagoena, hegoaldean. Garai batean enpresako biltegia izan zen beheko solairua. Bigarren eta hirugarren pisuetan, berriz, enpresako zuzendaritzako kideen bulegoak eta etxebizitza zeuden. Arrazionalismoaren ezaugarri nabarmenak ditu eraikinak: hormigoï armatuz egindakoak dira estaldurak, habe garaiak ditu, eta zutabe askeak, irekitasun sentsazioa emateko.

Izan ere, hori da arkitektura arrazionalaren ezaugarri nagusietako bat: eraikinak funtzio jakin bat betetzeko egokiak izatea. Hori dela eta, agerikoak dira ahalik eta espazio zabalenak eta argitsuenak egiteko ahaleginak. Elementu berak topa daitezke garai bateko jantokian. Egun parkearen mendealdean dago; T itxurako eraikin zuriaren kutsu arrazionala ere nabarmena da. Zabalasuna emateko asmoz, zutabeen gainean eraiki zuten lehen solairua, azpian aterpea gelditu zedin. Bestalde, argitasuna emateko leiho zabalez josirik daude hormak. Garai hartako joera estetikoak ere agerikoak da: orduko estiloari jarraikiz, zuriak dira paretak, higienezarekin zuten obsesioaren erakusgarri.

Kulturaren gordailu. Jantokiaren eraikinaren ezaugarri garrantzitsuenak, ordea, barraskilo itxurako eskailera da. Gerra garaian ongi babesteko asmoz, bunkerra eraiki zuten eraikinaren azpian. Gerora, jakin da guda amaitu ostean lantokiko abesbatzaren eta dantza taldearen entsegu gela izan zela. Martin Ugalde Kultur Parkea inauguratu zenean, balio kultural horri ere garrantzi berezia eman zioten, eraikinen inguruko erakusketa baten bidez.

Bestalde, erakusketa horren karietara, omenaldia egin zuten eraikinen jatorrizko diseinatzaileari: Luis Tolosari. Izan ere, Tolosak nahikoa jakinduria eta irudimena eduki bai, baina, ez zuen arkitekto gisa sinatzeko beharrezko ikasketarik. Haren lanak Euskal Herriko XX. mendeko arrazionalismoaren adierazle nagusietakoak dira, baina berandura arte ez zaio egin merezitako aitortza. Besteak beste, hark diseinatu da Ziako enpresaren eraikin nagusia ere; arrazionalismoaren adierazlea. 



UDALBILTZA
PARTZUERGOA

UDALBILTZAN
BAGABILTZA



Laborde anaien jantokia eta
sarrerako eraikina monu-
mentu izendatu zituzten.
Jon Urbe / Argazki Press



KONPONBIDEAK SEGURTASUNEAN

Area7

Konponbideak segurtasunean



Tolosa Hiribidea, 119 - 20018 Donostia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-21 78 00 - Fax: 943-21 79 99
www.ssarea7.com - area7@ssarea7.com



Bideozaintza
Sarbidetza
Intrusioa
Sutea



AYESTA

ingenieros S.A.

PROIEKTUAK • ERAIKUNTZAK
OBRALANAK • INDUSTRIA
NEKAZARITZA • ABELZAINZA

Tel.: 943-31 77 53
Faxa: 943-31 64 90
Sakelakoa: 689-98 20 06
ayestaingenieros@ctv.es

Zarautz etorbidea, 82 - 3.
20018 **DONOSTIA**



Aretoak

Balio anitzeko aretoak. Bilera, batzar eta ekitaldiak egiteko prestatuta daude. Areto nagusiak 100 laguntzako tokia dauka.

Parkeko guneak, guztien eskura

Lanerako erosotasuna eskaintzeko asmoz, azpiegiturari arretaz erreparatzen diote Martin Ugalde kultur parkean. Euskalgintzari eta kultur eragileei ahalik eta leku txukunena eskura uztea da asmoa. Bulegoek, aretoek, foroak, jangelak, *hall*-ak, lorategiak, aparkalekuek eta batzarrerako guneek osatzen dute parkea.

Aparkalekua

Guztira 120 ibilgailurentzako tokia duten bi aparkaleku



Jon Urbe / Argazki Press

Jangela

Parkeko langileek elkarrekin otorduak egin ahal izateko espazio hornitua.



Jon Urbe / Argazki Press

Kanpoko mahaiak

Eguraldiak laguntzen duenean otorduak eta bilerak egiteko azpiegitura.



Jon Urbe / Argazki Press

Coworking bulegoa txukundu dute, baliabide hobeak eta leku gehiago eskaintzeko.

Ane Fernandez

martin ugalde kultur parkea

11

Iñaki Gonzalo

Zirrimarra

«Bakoitzak bere lana seriotasunez egiteko aukera eskaintzen du guneak, eta sinergia berriak sortzeko bidea ematen du»

badago eredu horri jarraituz lan egiteko atondutako *coworking* gunea.

Ez da bulego arrunt bat, baina bulego arruntek duten azpiegitura dute espazio horiek ere. Bertara biltzen denak aukera izango du lan mahai propioa izateko, bilerak gunea eta inprimagailua erabiltzeko eta Internetarako konexioaz sarean nabigatzeko. Hori guztia 100 euroren truke alokatzen dute langileek, argindarra barne.

Martin Ugalde Kultur Parkea, gainera, ez da ohiko lantokia, eta, horregatik, parkeko dinamiketan parte hartzeko aukera izango dute *coworking*-eko langileek ere.

Abantaila materialak, ordea, ez dira lan espazio horien berezitasun bakarra. Horri baino gehiago, elkarren artean sortutako sinergiegi ematen diete balioa orain arte bertan lanean aritutako lagunek: «Perspektiba irekitzen digu horrelako espazio batean lan egiteak», dio Leire Elizegi Bizipozako langileak; «ideiak elkarbanatzeko aukera bikaina da, eta bete-betean egiten du bat Bizipozaren filosofiarekin». Egitura txikiak dituzten enpresentzat aukera ona dela aitortu du Elizegik. Bat egin du Zirrimarra diseinu grafikoko enpresako Iñaki Gonzalok ere. Aurretik lanean aritu izan da Martin Ugaldeko bulego batean, baina handiegia zen harentzat, eta etxera itzuli zen duela zenbait urte. Orain «neurrian» egindako bulegoa izango duela dio, eta, bide batez, «profesionaltasuna» irabaziko du berriz ere etxetik bulegora etorrita: «Askotan, bizitza pribatua eta lana uztartzea ez da egokia».

Mahaiatz gain, beste espazioak ere lan-gileen eskura jarri ditu Martin Ugalde parkeak, eta horrek baldintzak hobetzen ditu, Alberto Barandiaran Hekimeneko langilearen ustez: «Bilera gelak erabil ditzakegu, batzarrak antolatzeke leku aproposak ditugu, eta bestelako baliabideak ere gure esku daude». Alboan jende gehiago lanean edukitzeak ekartzen dituen onurak ere gogoan ditu: «Hanbait esparrutako jendea bulego berean elkartzea aberasgarria da». Gonzalok ere azpimarratu du hori: «Bakoitzak bere lana seriotasunez egiteko aukera eskaintzen du guneak, eta sinergia berriak sortzeko bidea ematen du». Finean, hori baita *coworking* ereduaren ardatza: bulegoetako azpiegitura eta harreman berriak egiteko aukera, prezio apalagoan. Martin Ugalden ere, hala da. ■ ■ ■

Leire Elizegi

Bizipoz

«Ideiak elkarbanatzeko aukera bikaina da, eta bete-betean egiten du bat Bizipozaren filosofiarekin».

Elkarrekin lan egiteko gunea

Ohiko bulegoez gain, 'coworking' espazioa eskaintzen du Martin Ugalde Kultur Parkeak. Lan mahaiak alokatzen dira, eta, horrela, zenbait enpresatako langileek aukera dute leku berean lan egiteko. Parkeko dinamiketarako eta zerbitzu orokorretarako sarbidea ere badute.

Hitzak berak dioen moduan, elkarrekin lan egiteko gunea da *coworking* espazioa. Azkenaldian bogan dagoen joera da hainbat lagunek lantoki bera erabiltzea. Bulegoa baino merkagoa izateaz gain, sinergiak eta elkarlana sortzen direla diote esperientzia hori bizitakoek, eta lana bera ere askoz atseginagoa dela kontatzen dute ordura arte bakarrik lanean jardun direnek. Martin Ugalden ere



Gutztiz Bikain
vending

☎ 672 462 153

Jaki makinen banatzailea parkean


Zorionak parkeari!

IRAUN DEZALA
URTE ASKOAN

.CAFÉS.

19 70

AITONA



Lantoki soil bat baino gehiago

Martin Ugalde Kultur Parkean dozenaka lagun elkartzen dira egunero lanera joateko. Komunitate izaerari eutsi nahi izan dio parkeak hamabost urteotan, eta, horregatik, hamaika ekintza antolatzen dituzte, elkarrekin parkea biziarazteko.



Egunero lanera biltzen diren guztiek euskalgintzaren adarretakoren batean lan egiten dute: horixe dute antzeko. Guztiek era biltzen dute espazio bera lanerako, eta egunero egiten dute topo parkeko lekuren batean edo bestean. Horregatik, Martin Ugaldeko kudeatzaile Ane Fernandezi garrantzitsua iruditzen zaio gunea saretzea: «Gurea ez da ohiko lantoki bat; badugu batzen gaituen zer-bait, eta, horregatik, garrantzitsua da elkarren berri izatea». Helburu horrekin, hamaika ekitaldi, ikastaro eta egitasmo antolatzen dituzte, lantokiari bizitasuna emateko asmoz.

Euskalgintzako enpresen topagune da Martin Ugalde, eta, horregatik, langileen topaleku izatea ezinbestekoa da, kudeatzaileen esanetan. Aisialdia eta ezagutza uztartzen dituzte, eta, horrela, lanaz gain, bestelako ekintzak egiteko aukera izaten dute kideek. Besteak beste, astea ongi asteko, astelehenetan yoga egitera elkartzen dira zenbait lagun. Hizkuntzetan trebatu nahi duenak ere aukera du ingeleseko edo frantseseko eskoletara joateko. Bertan elkartzen dira parkeko hainbat enpresatako langileak, eta, ikasteko aukera baliatzeaz gain, elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko ere aprobe-txatzen dute tarte hori.

Saio horiek, ordea, ez dira lankideen artean harremanak tinkotzeko aukera bakarra. Urtero, San Martin egunez, Martin Ugalde Kultur Parkeko eguna ospatzen dute, eta Korrikan ere elkarrekin irteten dira. Bestalde, batak bestearen berri izateko, eta sinergia berriak errazteko asmoz, hilabeteen behin egiten dute hitzordua bilera orokorra egiteko.

Jakintza partekatzeko gunea. Hamaika txokotatik joaten dira Martin Ugaldeko langileak bertara, baina norberak bere lanpostutik duen eragiteko gaitasuna azpimarratu du Fernandezek: «Jakintza metatu pila dugu parkean, eta, horregatik, ikastaroak ere eskaintzen dizkiogu elkarri». Hausnarketa prozesu batetik abiatu zen ideia hori, eta orain hilabetero antolatzen dituzte jardunaldiak. Langileek dituzten beharren arabera, ikastaroak proposatu eta bertako kideek eskaintzen dituzte. Besteak beste, komunikazio eta kazetaritza parekidea eta jende aurrean hitz egiteko teknikak landu dituzte jadanik. Iturola Hernaniko Elkarlan sorgunearekin batera.


Parkea biziarazten jarraitzeko ere beste hainbat jarduerara antolatzen hasiak dira jada: auzolana, bideogintza, TELP tailerrak... ugari dira prestatutako dinamikak; guztiek dute, ordea, gauza bera komunean: langileek senti dezatela Martin Ugalde Kultur Parkea lantoki soil bat baino gehiago dela.



**GARBIKETA PROFESIONALERAKO
BALIABIDE GUZTIAK,
MAKINERIA, GARBIKETA PRODUKTUAK ETA
GARBIKETA ZERBITZUAK**

NAFARROA ETORBIDEA 5, PASAIA. TELEFONOA: 943-35 05 33
info@distribucionesgrobe.com www.distribucionesgrobe.com





Martin Ugalde foroa: gogoeta plaza

2005ean ireki zituen atearak Martin Ugalde foroak, BERRIA egunkariaren eta Martin Ugalde Kultur Parkearen lankidetzaren bidez. Hasieratik, helburu berarekin aritu dira lanean: euskarazko hausnarketa, elkarrizketak eta eztabaidak sustatzea.

«Foroa gune irekia da, zabala, hitzaren esparrua, topaketaren, trukearen eta elkarrizketaren lekua. Eta herritarrena». Hala zioen Juan Mari Torrealdaik Martin Ugalde foroaren aurkezpen egunean. Martin Ugalde zenaren izena ere ekarri zuen gogora: izaera kritikoduna, baina solaskideekiko errespetuzkoa. 2005eko egun hartatik hamaika elkarrizketa eta hitzordu egin dira Martin Ugalde foroan. Guztiek iparrorratz berari jarraitu diote, ordea: aktualitatea lantzea, euskal pentsamendua garatzea, eta gizarte eraldaketari lotutako eztabaida sustatzea.


Ordutik, askotarikoa izan da gaitegia, eta askotarikoa hitzaldi ere-dua. Besteak beste, euskalgintza, feminismoa, sindikalismoa, euskal kulturaz, autodeterminazio eskubideaz eta komunikabideen rola aritu dira hizketan. Eztabaiden plaza ahalik eta irekiena izateko, gainera, azken urteotan *Berria.eus* webguneak jarraipen berezia egin du.

Foroaren ezaugarrietako bat da gaur-gaurko gaiak lantzea. Horren adibide gisa, joan den irailaren 13an Kataluniako afera aztertu zuten

Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak eta Vicent Partal *Vilaweb* atariko zuzendariak. Foroan hitza hartutako lagunen zerrenda amaigabea da: Mari Luz Esteban, Juan Joxe Ibarretxe, Arnaldo Otegi, Mixel Berhokoirigoin, Maialen Lujanbio, Iñigo Urkullu, Joxe Azurmendi, Lorea Agirre, Toni Strubell, Paul Bilbao, Mertxe Mujika eta abar izan dira foroan solasean.

Eztabaida politikorako tartea ere izan da urte horietan. Besteak beste, Arnaldo Otegi, Mikel Basabe, Joseba Egibar, Onintza Lasa eta Mikel Arana bildu ziren foroaren mahaiaren bueltan 2009an. Bestalde, euskal kulturaren hausnarketarako topagune ere izan da foroa, eta, horren lekuko, Lorea Agirrek eta Ibai Iztueta idazleak solasaldia eskaini zuten euskal kultura euskaraz soilik egin ote daitekeen edo ez eztabaidatzeko.

Foroa herriko plaza zela esan zuen Torrealdaik inaugurazio egunean. 12 urte geroago ere, elkarrizketarako, eztabaidarako eta jakintzaren transmisiorako plaza irekia da oraindik.




Domínguez Iribarren s.l.

PROFESIONALAK MARGOLARITZAN,
LAKATUETAN, PAPEREZTATZEAN,
IMITAZIOETAN, ESTALDURETAN...

Apatta industrialdea
Baratzondo kalea - 10, pab. 20400 Ibarra • Gipuzkoa

943-11 87 03
610-45 88 72

francisco.dominguez@euskalnet.net



Martin Ugalde Kultur Parkeko beka

«Estrategikoa da euskararen eta feminismoaren arteko aliantza»

Kattalin Miner

Kazetaria eta Martin Ugalde Kultur Parkeko bekaren irabazlea



Maddi Altuna Galfarsorok, Danele Sarriugarte Mochalesek eta Kattalin Miner Perezek osatutako taldearen proiektuak lortu du aurtengo beka. Ane Fernandez

Bigarren ez eskaini du kultur parkeak Martin Ugalde beka. Aurtengo gaia: zer garapen eta eragin izan duen genero ikuspegiak *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Berria*-n. Bost taldek aurkeztu dute proiektua, eta Maddi Altuna Galfarsorok, Danele Sarriugarte Mochalesek eta Kattalin Miner Perezek osatutako taldeak irabazi du saria. Urtebete dute ikerketa egiteko; emaitza ikus-entzunezko dokumental bat izatea nahi dute ikerlariak. Minerrek azaldu ditu proiektuaren nondik norakoak.

Mardula da gaia. Zein ertzetik heldu diozue proiektuari?

Hiru ardatz izango ditu gure ikerketak. Batetik, genero ikuspegiak egunkariotan izandako ibilbidea aztertuko dugu kazetaritza ikuspegitik eta genero gaien trataeratik. Azpimarra berezia egin dugu irakuleengan eduki duen eraginean. Uste dugu *Berria*-k lana egin duela lanketa feminista gizarteratzen. Amaitzeko, mugimendu feministak eta beste hartzaile batzuek nola ikusi duten bilakaera hori.

Idatzizko ikerketa egiteko aukera zegoen, baina zuek ikus-entzunezkoa aukeratu duzue. Zergatik?

Xedeetako bat da eginiko gogoeak zabaltzea, eta, gaur egun, ikus-entzunezkoak aukera handiagoa ematen digu. Gainera, aukera ematen die elkarriketatuei beste modu batera espresazeko.

Euskarak eta feminismoak elkarrekin bidea egin dezaketela diote ahots batzuek.

Ez da kasualitatea aurtengo bekaren gaia hori izatea. Guk badugu intuizio bat *Berria*-k asko landu eta zaindu duela gai hori. Aldi berean, mugimendu feministaren tza aberasgarria da euskaraz jardutea. Modu natural batean gertatzen da feminismoaren eta euskararen arteko lotura; periferikotzat hartzen diren elementuen arteko aliantzak egin behar ditugu; estrategikoa da.

Hedabideetan indarkeria matxistak duen trataerari buruzko lanketa egingo duzue?

Ikerketa honetan garrantzi berezia emago diogu indarkeria matxistaren trataerari. Ikusi dugu *Berria* erreferentea izan dela trataeran eta baita ematen zaion garrantzian ere. Lehenengoak dira indarkeria matxistarekin lotura duten albisteak argitaratzen, eta kode deontologiko feminista bati jarraitzen diote, gainera. Kazetari eta feminista gisa, hori oso garrantzitsua da.

Urtebete duzue proiektua aurrera eramateko. Zein da zuen erronka nagusia?

Azterketa egiteaz gain, nahi dugu tresna bat sortu, baliagarria izan dadin hedabideetan eta mugimendu feministak gai horien trataeraren inguruko lanketa egiteko. Ikusgai egin nahi dugu hedabideetan ikuspegi feminista txertatzaren garrantzia. ■ ■ ■



Electricidad SANCHEZ

METATZAILEAK • AUTOMATISMOAK
INSTALAZIO OROKORRAK

Zorionak
Martin Ugalde kultur parkeari!!!


639-65 20 16 - 609-56 02 50

Lantegi lizardi bidea, 7 • 20015 DONOSTIA

sanchez.comunicacion@hotmail.com

martin ugalde
kultur parkea

Non da nor?



- (A) Joseba Jaka eraikina
- (B) Joxemi Zumalabe eraikina
- (C) Alberto Diez eraikina
- (D) Eraikin nagusia

Bestelako espazioak

- 1 Harrera
- 2 Erabilera askotarako aretoak
- 3 'Hall'-a
- 4 Lorategia
- 5 Jantokia

Behe solairua

- 1 Pixel ikus-entzunezko ekoizpenak
- 2 Emun kooperatiba
- 3 Musika Zuzenean
- 4 Topatu
- 5 Euskal Herriko Bilgune Feminista
- 6 Emagin. Formakuntza, dokumentazio eta ikerkuntza feminista
- 7 Leitzarari grafikak
- 8 Sortzen Ikasbatuaz elkarteak
- 20 Bidera, komunikazio zerbitzuak


Lehen solairua

- 9 Aztiker soziologia ikergunea
- 10 Lanku bertso zerbitzuak
- 11 Soziolinguistika Klusterra
- 12 'Coworking'-a: Zirrimarra Grafikoa, Hekimen elkarteak, Bizi Poza elkarteak
- 13 Gaindegia
- 14 Gislari
- 20 Bidera komunikazio zerbitzuak
- 21 Berria Taldea

Bigarren solairua

- 15 Ziurtagirien elkarteak
- 16 Euskararen Kontseilua
- 17 'Jakiri' aldirakaria
- 18 IZT informatika zerbitzuak
- 19 Irriren Lagunak elkarteak
- 20 Bidera komunikazio zerbitzuak





Metodo zientifikoz herria pentsatzen

Ikerketa, diagnostiko eta esku hartze zorrotzak egiten ditu Aztiker soziologia taldeak, eta, aldi berean, indar berezia egiten du partaidetza eta talde lana sustatzeko. Urteetako esperientziak eta hausnarketek ahalbidetu dute Euskal Herrian aztertu eta eragiteko metodoa garatzea.

Soziologia ikergunea

da Aztiker. Ugari dira egindako ikerketa eta esku hartzeak, eta ugari lan horretan erabilitako metodo eta teknikak. Izan ere, urte horietan guztietan, lan egiteko era propioa garatu du Aztikerrak, Euskal Herriko errealitatera egokitzen dena, eta tokian tokiko beharrei erreparatzen diena.

Metodo zientifiko zorrotza du ardatz soziologia taldeak, eta horren bitartez, inkestak, ikerketak, ebaluazioak, diagnostikoak eta eragiteko planak osatu ohi dituzte, datu eta ikerketa ahalik eta fidagarrienak egiteko. Ez da hori, ordea, taldearen ezaugarrietako bakarra: talde eta komunitate lana sustatzea eta dinamizatzea baita beste helburuetako bat. Biak ala biak egiteko, beraz, etengabeko eraldaketan ari da taldea.

«Ibilbide luzea dugu, baina igarri da aldaketa geure jardunean», adierazi du Susana Martinez Aztikerreko ikerlaria. 2000. urtean sortu zen taldea, eta ordutik hausnarketa prozesu ugari izan dituzte metodologia eraginkorrak bilatzeko asmoz. Horietan esanguratsua izan zen 2007an egindako urratsa: «Metodologia berezi bat sortu genuen Euskal Herriko datuak biltzeko, ikerke-

tetan erabili ahal izateko eta lurralde osorako baliogarriak izateko». Ordutik, taldearen lan ildo garrantzitsuetako bat izan da Euskal Herri mailan ikerketak egitea: «Herri bat izan nahi badugu, lehenik eskala horretan pentsatu eta ezagutarazi behar dugu geure burua», ohartarazi du Martinezek. Gogorarazi du Aztiker behar horretatik sortu zela, eta gaur egun ere helburuetako bat dela Euskal Herriaren garapenean eragitea. Horregatik, bereziki erreparatzen diete herritarren diskurtsoei eta baita datu estatistikoei ere.

Dena den, ez da hori Aztikerraren ildo bakarra. Hain zuzen ere, Martinezek azaldu du ikerketa taldeek etengabeko eguneratzea behar dutela: «Lehentasunezko gaiak aldatu egin ohi dira, eta metodologiak ere testuinguru horretara moldatu behar ditugu». Batak bat erakunde publikoekin egiten du lan soziologia ikerguneak, eta nabari da gaitegia aldatzen dela noizean behin: «Politika publikoak egiteko administrazioak unean uneko errealitatearen argazkia behar du, eta, noski, gizarteko gai estrategiko horiek jaso eta interpretatzeko, guk ere gai horien ezagutza sakondu behar izaten dugu».

Lana bai, baina, balio batzuk kontuan hartuta egin behar dela dago ikerlaria: «Metodologiak egokitzen ditugu ahalik eta kalitate oneneko azterketak egin ahal izateko, baina garrantzitsua da tokiko berezitasunak kontuan hartzea». Horregatik, udalen beharrei arretaz erreparatzen die Aztikerrak, eta gazte eta genero ikuspegia txertatzen dute egiten dituzten lanetan. Soziologia taldearen funtsa baita ahalik eta zorroztasun zientifiko handienez komunitatean eragitea.

[a] aztiker
soziologia ikergunea

Izena: Aztiker soziologia ikergunea


Jarduera: Soziologia ikerketak metodo zientifiko zorrotzaren arabera eta talde lana artikulatzeko dinamizazioa.

Telefonoa: 943-593006 / 688-648040

Webgunea: www.aztiker.eus

Helbide elektronikoa:

idadkaritza@aztiker.eus



Hamar urte lan mundua euskaratzen

 Euskal Herriko arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko asmoz lanean dihardu Bai Euskarari elkarteak, enpresa, saltoki eta bestelako eragileekin. Elkarteko kideen ustez, hizkuntzaren normalizatorako beharrezkoa da enpresagintza eremuan ere jardutea. Lan horretan, hamarkada bat bete du taldeak.

«Oso pozik gaude egin dugun lanarekin, eta esker oneko gaude bidean lagundu gaituzten guztiekin», Rober Gutierrez Bai Euskarari elkarteko kideak gogo onez hartu ditu taldearen hamar urteak. Izan ere, elkartea sortu zenetik, hamaika izan dira Euskal Herriko arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko asmoz abian jarritako proiektuak.

2007an sortu zen proiektua lan munduaren euskalduntzean eragiteko asmoz, eta Bai Euskarari Ziurtagiria indartzeko helburuarekin. Ordutik, makina bat enpresa eta eragilerekin aritu dira lanean, eta, Gutierrezen arabera, taldeak erreferentzialtasuna lortu du gizartearen: «Batez ere gure kideen konpromisoagatik, ereduagatik eta bide erakusle izateagatik».

Euskara lan munduan ere erabiltzea hizkuntzaren normalizazioaren bidean urrats handia dela uste du Gutierrezek, eta, horregatik, azpimarratu du Bai Euskarari elkartea ez dela ziurtagirira mugatzen: «Lan munduak gure bizimoduaren eta hizkuntza jardueraren eragin nabarmena du, lanean pasatzen dugun denboragatik eta produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile garelako». Horregatik, ezinbestekotzat jo du euskara arlo horretan ere sustatzea.

Gaur-gaurkoz hezkuntza eus-

kalduntzeko egindako lana handia bada ere, ohartarazi du hori ez dela oraindik lan merkatuan islatzen: «Geroz eta gehiago dira euskaraz ikasi duten eta trebatu diren pertsonak, baina euskaraz formatutako belaunaldiak erdaraz lan egin behar izaten du gehienetan». Dena den, aitortu du egoera iraultzen ari dela pixkanaka eta egiten ari direla euskara indartzeko aha-
leginak.

Ahalegin horietan esku hartzen du, hain zuzen ere, Bai Euskarari elkarteak. Ziurtagiriaren bitartez, euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean diharduten enpresak, saltokiak eta bestelako eragileak identifikatzen dituzte. Gainera, elkarteak baliabideak ematen ditu, besteak beste diagnosirako eta praktika egokietarako. Baina hori ez da elkartearen lan bakarra. Azken urteotan martxan jarri dituzte proiektu berriak. Aipagarriak dira, esate baterako, Enpresarean, Lansarean eta Lanabes egitasmoak. Lehenak harremanetan jartzen ditu euskaraz lan egin nahi duten enpresak. Bigarrena, berriz, euskara hutsean dagoen Euskal Herriko lan atari bakarra da. Hirugarrenak helburu dauka Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea.

Hizkuntzaren normalizaziorako lan munduak duen garrantziaz jabeturik, lanean dihardu Bai Euskarari elkarteak, eta norabide horretan Martin Ugalde kultur parkearen garrantziaz ohartarazi du Gutierrezek: «Euskaraz lan egiten duten enpresen elkargunea izanik, aukera baliatu behar dugu elkarrekin proiektu arrakastatsu berriak abiatzeko» 



Izena: Bai Euskarari Elkarte

Jarduera: Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko helburuarekin ari gara lanean


Helbide elektronikoa:
info@baieuskarari.eus

Webgunea: www.baieuskarari.eus

Telefona. +34 943 592148/

+34 673 811048/ +33 05 24 33 61 96





Inoiz baino Berriago

■ Datorren urtean beteko ditu 'Berria' egunkariak hamabost urte.

'Euskaldunon Egunkaria'-ren itxieraren ostean, herritarren babesean sortu zen. Orain, erronka berriei egin behar die aurre, eta, horretarako, urteurrena mugarri izan dadin nahi dute kideek.

«Sortu behar ez zen proiektua» izan zen *Berria* egunkaria, Iban Arregi Berria Taldeko kontseilu ordezkariaren ustez. 2003ko ekainaren 23an kaleratu zen *Berria*-ren lehen zenbakia, hilabete batzuk lehenago Espainiako Autzitegi Nazionalaren aginduz itxi zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren ondorengo izateko xedearekin. Ondo bidean, inoiz ez zen *Berria* argitaratuko, baina, ustekabeko proiektu horrek hamabost urte beteko ditu datorren urtean. Herri osoaren babesean sortu zen egunkaria, eta indar handia jarri zuten euskalgintzako hamaika lagunek proiektuan. Ordutik, bilakaera handia izan du, eta urteurrena baliatuko du taldeak hausnarketa prozesu bat abiatzeko.

«Ez zen samurra izan hastapena», gogoan du Arregik. *Euskaldunon Egunkaria*-k utzitako

arrastoari jarraituz ekin zioten bideari, baina bete-betean harropatu zituen eredu aldaketak:

«Kontsumo eredu aldaturaz joan zen apurka, eta krisia heldu zen gainera». Etengabeko berrikuntza prozesuan hasi zen *Berria* egunkaria orduan: «Edukia euskaraz egiten dugu, eta gure euskal komunitateari dohainik ematea ezinbestekoa da», azaldu du kudeatzaileak. Sareko edukia nola hedatu, horren inguruko hausnarketa ere abiatu zuen due-la hainbat urte egunkariak.

Gaur-gaurkoz, egunkariaren egoerak «ilusioa» piztu du, baina urrats bat harago egin nahi dute urteurrenean. *Berria* berriago bat nahi dute hamabosgarrenean. Horregatik, hiru ildo nagusiri helduko diete datorren urtean. Bate-tik, hausnarketa prozesu estrategiko bat abiatuko dute etxe barruan. Bestetik, kanpora begirako lana ere egitea helburu dute, instituzioekin eta gizarte eragileekin: «Hekimenekin eta erakunde publikoekin lanean ari gara diru laguntza sistematik beste eredu baterako urratsa egiteko. Horretaz gain, gizarteari begira ere diseinatu dugu dinamika bat».

Euskalgintzako eragile eta norbanakoekin lanean dihardu *Berriak*. «Hautu estrategikoa da. *Berria*-k ezin du aurrera egin bakarrik, baina, gainera, ez dugu bidea guk bakarrik egin nahi». Euskal hiztun komunitatera heldu nahi du *Berria*-k, baina ez ditu kideak hartzaile gisa soilik ikusten: «Solaskidetzan nahi dugu gure irakurleekin eta komunitate kideekin». Izan ere, azalbertutara ere, *Berria* egunkariak ez ditu hasierako helburuak ahaztu: «Kazetaritza independentearen bidez, produktu erakargarri bat sortu nahi dugu, hizkuntzaren normalizazioan eta herri normalizazioan lanean jardungo due-na».

berria

Izena: Berria


Jarduera: Euskarazko komunikazio taldea

Webgunea: www.berria.eus

Telefona: 943-30 40 30

Helbide elektronikoa: berria@berria.eus





'Berria'-ren esperientzia, enpresen eta erakundeen eskura

■ Berria Taldearen zerbitzu enpresa da Bidera. Egunkariaren azpiegituran eta ezagutzan oinarritutako baliabideak eskaintzen dizkie taldeak enpresei eta erakundeei. Komunikazio, itzulpen, banaketa, dei zentro, aholkularitza eta publizitate lanak egiten dituzte.

Hamaika hostoz osatutako zerbitzu taldea da Bidera. Izan ere, eragileentzat eta enpresentzat ohiko kezka izaten da eraginkorrak izatea publizitatean, itzulpengintzan eta komunikazio kanpainetan. Behar horiek betetzeko asmoz, Bidera zerbitzu taldea sortu zen 2011n, Berria Taldearen esperientzia enpresen eta erakundeen esku jartzeko.

Sorburuko gogoeta erraza izan zen, Bidera zerbitzuetako zuzendariaren ustez: «Kanpora begira noizean behin egiten genituen lanak marka bakarrean biltzea: hori izan zen gure abiapuntua». Aletu egin zituzten orduan egunkariak eskain ditzakeen jarduerak, eta, gaur egun, zerbitzu horiek dira, hostoz-hosto, Biderak eskaintzen dituenak: komunikazioa, itzulpenak, banaketa, dei zentroa, aholkularitza eta publizitatea. Zutoin bera dute abiapuntu zerbitzu enpresaren adarrek: «Berria Taldearen azpiegitura erabiltzen dugu geure lanak egiteko», azaldu du Amaia Belaunzaran Bidera Zerbitzuetako komertzialak. Esate baterako, egunkariko euskara taldeko kideek egiten

dituzte Biderak kudeatutako itzulpen lanak, «kalitatezko zerbitzu profesionala» eskainiz.

Ez da, ordea, zerbitzu taldeak egiten duen jarduera bakarra. Komunikazio zerbitzu integralak eskaintzen ditu Biderak, baina hostoz-hostoko aukera ere egin dezake bezeroak. Komunikazioari dagokionez, esaterako, diseinu grafikoan eta testuen sorreran Berria Taldeko langileek hartzen dute parte, eta, banaketa zerbitzuan, berriaz, egunkariaren azpiegitura baliatuta, zerbitzua eskaintzen du Biderak Euskal Herri osoan. Gainera, unean uneko komunikazio joerei ere jarraitzen die enpresak: «Duela gutxi, *pomming* banaketa egin genuen», gogoan du Belaunzaranek. Ohiko posta zerbitzua-aren ordeaz, etxez etxe ateko eskutokian informazioa zintzilikatzean datza teknika hori.

Publizitate eta dei zentroaren eskaintza ere badu Biderak, eta komunikazio estrategiak egiten ditu enpresa eta eragileentzat. Gainera, kontabilitate eta aholkularitza lanak ere egiten dituzte, Berria Taldearen balio nagusietako bat ardatz hartuta: «Euskara hutsean eskaintzen ditugu kudeaketa eta dokumentuak». Horrela, komunikazio arloko hainbat ertz lantzen dituzte Biderako kideek, kalitatezko zerbitzua bermatuz eta bezeroaren beharrak zeintzuk diren kontuan harturik. Erronka horri heltzeko gakoa zein den argi du Belaunzaranek: «Berriak metatutako ezagutza eta eskarmentua denen eskura jartzea».

bidera
zerbitzuak

Izena: Bidera

Jarduera: Berria Taldearen zerbitzu enpresa.

Telefonoa: 943-30 35 55 - 607-78 73 0 4

Helbide elektronikoa:

bidera @bidera.eus

Webgunea: www.bidera.eus



Idoia Zabalera / Argazki Press

Burujabetza feminista helburu

Emakume* abertzale feministen sarea da Bilgune Feminista. Egizan taldeak utzitako hutsunea bete nahian sortu zen, duela hamabost urte. Urteetan lanean aritu da Euskal Herriaren burujabetza feminista erdiesteko; gorputzen eta harremanen eraldaketa prozesua erdigunean jarri dute horretarako.

Joan den maiatzean ospatu zuen
Bilgune Feministak 15.

urteurrena. Jagoba Manterola / ARP



Hamabost urte bete berri ditu Bilgune Feministak, eta Emakume* Abertzaleen VII. Topaketekin ospatu zuten urteurrena, joan den maiatzean, Berriozaurren. *Indar bat gara gu* hartu zuten leloa, eta ahalduz eta boteretze prozesuan ari direla aldarrikatu zuten han. Prozesu luzea baita Euskal Herriko burujabetza feminista lortzea. Bidean, hamaika hausnarketa, eredu aldatuta, eta etengabeko berrikuntza egin dute Bilgune Feministako kideek.

Egizan eragilea desagertu ostean, hainbat emakume feministak erreferente falta sumatu zuten, eta 2001ean, Emakume Abertzaleen I. Topaketa Feministak antolatu ostean, erabaki zuten Euskal Herriko Bilgune Feminista sortzea. Horixe baita eragilea: emakume* abertzale feministen topagunea. Nagusiki, hiru zapalkuntzari aurre nola egin lanean aritu da Bilgune Feminista: sexu-genero sistemarena, klasearena eta nazio eta kulturarena. Euskaratik egiten dute feminismoa, eta, kideek azaldu dutenez, hautu politikoa izan da hori: «Euskal feminismoa aritu nahi badugu, hala-beharrez hitz egin behar dugu feminismoa euskaldunaz». Testuingurua, ordea, asko aldatu da hamabost urtean, eta unean une-ko proposamenak egin dituzte taldekoek.

Besteak beste, lanean dihardute egun herrigintzan, indarkeria sexistaren inguruko gogoetan, internazionalismoan, gatazken konponbidean eta bakegintzan. Kideen ustez, beharrezkoa da gorputzen eta harremanen eraldaketa egitea, eta eztabaiden erdigunean horrek ere egon behar

duela azpimarratu dute. Erakundetze motaren eta militantzia erduaren inguruko eztabaida premiazkotzat jo dute, eta azpimarratu dute trantsizio feminista bat behar dela Euskal Herrian.

Testuingurua bera aldatzeaz gain, feminismoen joerak ere aldatuz joan direla aitortu dute kideek: «Feminismoen bilakaera eta eguneratzea gertutik jarraitu dugu, eta hala behar du izan une-ko diagnosi eta jardun feminista egokia egiteko». Modu horretan, emakumeen bizi baldintzak hobetzeko proposamenak egiten dituzte, baita pertsonen arteko harreman eredu berriak bultzatu ere.

Lan hori egiteko, baina, Bilgune Feministako kideak ez daude bakarrik: «Garrantzitsua da indar feminista artikulatzea, ehuntzea eta zaintzea. Finean, kolektiboki borrokatzea». Herrietako taldeez gain, inguruko talde eta subjektu feministekin egiten dituzte aliantzak, elkar elikatu eta bakoitzaren jarduna aberasteko. Hala azpimarratu dute taldeko kideek: «Denak dira, moduren batean, Bilgune proiektuaren parte, eta denak ditugu beharrezko».



Izena: Bilgune Feminista


Jarduera: Nazio mailako erakunde feminista eta abertzalea da, esparru ugari emakume askoren eta askotarikoaren hausnarketatik sortutako egitasmoa. Euskal feministen oinarrikoak.

Telefonoa: 943-59 09 02

Helbide elektronikoa:

info@bilgunefeminista.eus

Webgunea: www.bilgunefeminista.eus



Izaera berezia duten 33 elkarteek osatzen dute Bizipoza elkarte. Asko izanagatik, ordea, helburu bera dute guztiek: haur eta familien ongizatea bermatzea. «Elkarte guztiok dugu nahi bera», azaldu du Leire Elizegi elkarte koordinatorak, «munduak herritar guztientzako eginga beharko luke». Izan ere, aniztasuna da taldearen ardatzetako bat. Hamaika eratako familia elkarteak, haurren gaixotasunak lantzen dituzten taldeak, kultura aniztasuna jorratzen dutenak, sindromeen inguruan aritzen direnak... biltzen dira Bizipozaren atzerkipean. Lan egiteko erak ere batzen ditu: «Euskaraz eta auzolanean».

Bizipozaren helburu nagusienetako bat da elkarte horien jarduna gizarteratzea. Ez da bakarra, ordea. Elizegiren ustez, garrantzitsua da talde horiek dituzten behar emozionalak ere asetzeari: «Esku artean dituzten gaiak ez dira samurrak, eta elkarrekin aurre egitea ederragoa izaten da». Lan hori guztia aurrera eramateko, gainera, boluntario sare handi bat dute, norbanakoei eta gizarte eragileek osatuta. Horiek ere oinarri komunaren gainean egiten dute lan: auzolana, euskara, elkartasuna eta bizipoza.

Helburu handi horiek lortze bidean, egitasmo finkoak lantzen ditu Bizipozak urte osoan. Batetik, bi jardunaldi antolatatu ditu aurretik: elkarte guztien harremana indartzeko bata; komunikabideen sarea osatzeko, bestea. «Lehen aldiz egingo dugu topaketa hori», azaldu du Elizegik, «helburua da elkar ezagutzea komunikabideetako kazetariak eta



Izena: Bizipoza

Jarduerak: Ezaera bereziko gaiak lantzen dituzten 32 elkarte osatutako elkarte

Webgunea: www.bizipoza.eus

Telefonoa: 647 35 53 52

Helbide elektronikoa:
bizipoza@bizipoza.eus




elkarteetako ordezkariak». Bestalde, Bizipoza jaialdia antolatzen dute urtero, elkarteek egindako lana ezagutarazteko, eta «alaitasunetik ezberdintasuna» ospatzeko. Durangoko Azoka ere mugarriz izaten da Bizipozaren agendan: «Elkarteek erakusleio bat izan dezaten ahalgintzen gara, haien lana ezagutaraz dadin», adierazi du Elizegik.

Horiek, ordea, ez dira erakusleio bakarrak. *Irria* aldizkarian, esaterako, hilabeteko argitaratzen dute elkarte bakoitzaren inguruko ipuina, eta Real Sociedad fundazioak ere urtero ematen dio sustengua Bizipozako elkarerentzako. Dena den, Elizegik ohartarazi du beharrezkoa dela boluntarioen lana, eta horretarako, sarea osatzeko kanpaina abiatuko dute abendutik aurrera: «Ari gara pixkanaka unibertsitatean, euskara elkarteetan eta gazteen artean proiektua ezagutarazten», azpimarratu du Bizipozako koordinatzaileak. Izan ere, Elizegiren ustez, nahi duen orok du tokia Bizipoza proiektuan: «Elkarlanean oinarritzen gara; guztiok dugu zer eman eta zer jaso. Horixe da Bizipoza».

Guztientzako bizigarria den mundua amets

Haurren eta familien ongizatea bermatzea xedea duten hainbat elkarte osatzen dute Bizipoza proiektua. «Elkarleen elkarte» ere deitu izan diote, taldeen arteko elkarlana sustatzeagatik. Aniztasuna dute ardatz: sexuan, kulturen, familian eta gaixotasunetan, esaterako.



Lau hamarkadan, euskal kultura ardatz

Euskal kultura indartzen, eta haur, gazte eta helduentzako euskarazko erreferenteak sortzen lanean aritu da Elkar lau hamarkadan. Ibilbide osoan aldaketa nabarmenak izan arren, hasierako helburuari heldu dio fundazioak.

1970eko hamarkadako kultur lehorteari erantzunez abiatua zen Elkar, liburuaren baliokate osoa bere barnean hartzen zuen enpresa talde gisa antolatuta, argitaletxea, banaketa eta liburu dendak. Irabaziak berriro kultur inbertituz handitu eta sendotu zen enpresa taldea, eta 1996an hartu zuen gaur egungo izaera juridikoa, fundazioa, orduan arteko patrimonioa hartu eta berrinbertsio politika ziurtatuz etorkizunera.

XXI. mendearen hasieran, Elkar sendotzen ari da, argitaletxeak indartuz, banaketa eta denden sarea zabalduz eta ekimen enpresarial eta kultural berrietan parte hartuz, beti elkarlana sustatuz.

Besteak beste, autonomia, elkarlana eta berrinbertsioa izan ditu balio nagusi, eta haiei esker jarraitzen du bidea egiten. Autonomiak eman dio aukera bere bide propioa egiteko, eta baliabide guztiak izan dira beti berriro kultur proiektuan inbertitzeko, eta horrela joan da kultur talde sendoa egiten.

Elkar fundazioaren barruan gaur egun lau argitaletxe daude (Elkar, Ttartalo, Txertoa eta Sua) eta bi musika etxe (Elkar eta Oihuka); banaketarako bost enpresa (Elkar banaketa Euskal Herrian eta beste lau kanpoan); 20 denda Euskal Herri osoan zabaldua eta Leitzaran inprimatze zentroa. Enpresa horien bidez, sorrerako misioari eusten zaio, eta hura garatzeko lan egiten da egunero: «euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu eraginkorrean bultzatzea da Elkar fundazioaren xedea, enpresa eta ekonomia euskal kulturaren zerbitzura jarritz».

Halaber, Elkarrek zuzenean hartu du parte beste eragile bartzuekin elkarlanean euskarak eta euskal kulturak ezinbesteko dituen proiektuak gauzatzea helburu hartuta. Martin Ugalde Kultur Parke bera da adibide argi bat, *Euskaldunon Egunkaria* eta Graficas Lizarrarekin batera egindako proiektua. Horrez gain, elkarlanean sortuak dira Ikaslekar argitaletxea ikasmateriala lantzeko, ikastolekin; Irrien laguna klubak haurrentzako aldizkaria eta erreferenteak sortzeko, *Irria* eta Katxiporretarekin; Hammaika telebista, *Berria*, *Gara*, *Noticias*, *Bainet* eta Euskaltekin batera.

Elkarrek banaketarako biltegietako bat du gaur egun Martin Ugalden, eta fundaziokoa den Leitzaran Grafikak eta bertan dago.. ■ ■ ■

Izena: Elkar Fundazioa


Jarduera: Euskararen eta euskal kulturaren sustapena modu eraginkorrean bultzatzea

Webgunea: www.elkar.eus

Helbide elektronikoa: elkar@elkar.eus

Telefona: +34 902 115 210





Juan Carlos Ruiz / Argazki Press



Ezagutza feminista denean

■ Mugimendu feministaren altzoan sortu zen Emagin ikerketa eta formakuntza elkarteak, 2003an. Hasierako helburu nagusia zen feminismoan egiten ziren jarduerak dokumentatzea. Urteak joan ahala, ordea, ildo berriei heldu, eta horietan feminismoaren bidez sakontzen ari da taldea.

«Askotan, amildegia

bezain handia da teoriaren eta praktikaren arteko arrakala». Herri mugimenduaren eta teoria eta akademiaren arteko aldea handia izaten da sarri, eta distantzia hori murrizteko asmoz sortu zen Emagin ikerketa eta formakuntza taldea, 2003an. «Emaginen bilakaera mugimendu feministaren bilakaeraren parekoa da», azaldu du Arantza Santesteban ikerketa taldeko kideak. Hain zuzen ere, garai batean Euskal Herriko mugimendu feministak zuen gabezia betetzeko asmoz sortu zen Emagin: «Ordura arte egindako ekoizpena jaso eta artxibo historikoa osatzeko sortu zen lantaldea».

Lan horrek, ordea, proiektu handiago bati eman zion bide, eta horrela, Euskal Herriko mugimendu

feministaren genealogia egiteko ideia sortu zen; ikerketa horren emaitza izan zen *Gure genealogia feministak* liburua. Prozesu horretan ikusi zuten bazegoela aukera ildo berriei heltzeko, eta, horrela, hausnarketa fase baten ondoren, eraberritu egin zen Emagin. Ordutik, ikerketa eta formakuntzaren bideari heldu zioten indar handiagoz.

Emaginek ez ditu edonolako ikerketak egiten. Feminismoa dute ardatz eta metodologia, eta teoria horri jarraikiz egiten dituzte lanak. Teoria feministak izandako gorakadak eragin nabarmena izan du, taldekideen ustez: «Unibertsitatean, herri mugimenduetan, mugimendu feministan... lanean ari dira norabide horretan». Emaginek, beraz, horiek guztiak saretu eta aliantzak sortzeko erronka ere hartu du bere gain: «Lanean ari gara instituzioekin, herri eragileekin eta bestelako erakundeekin ere», azaldu du Santestebanek.

Ezagutza feminista ekoitziz eta jakinduria feminista bilduz, herri mugimenduan eta beste erakundeetan eragitea da Emaginen asmoa, eta, horretarako, pilatutako teoria hori guztia eragileen eskura jarri nahi dute, praktikak eta teoriak elkar elikatzen dutelako.

Feminismoz lan egiteak hamaika ertz uki ditzake, eta, horregatik, Emagineko lantaldeak oinarri jakin batzuen gainean egiten du lan. Ikuspegi kritikoa, euskara, ahalduntzea, kideetasuna, gorputzaren kontzientzia eta interseksionalitatea dira balio horiek, eta zoru horren gainean ikertzen dute. Ezagutza feminista sortu eta herri eragileekin partekatzea, eta eragileekin jakinduria pilatzea eta horietatik ikastea, horixe da Emaginen apustua. ■ ■ ■



Izena: Emagin


Jarduera: Formakuntza eta ikerketa feminista egiten duen elkarteak.

Helbide elektronikoa:

emaginarartxiboa@gmail.com

Webgunea: www.emagin.eus

Telefona: 943-59 09 02



Euskaratik berrikuntza sozialera

■ Debagoieneko enpresetan euskarak duen presentzia eskasak kezkatuta, lanari ekin zioten Emun kooperatibako kideek duela 20 urte. Euskararen biziberritze prozesuan ikasitakoa hedatu egin dute beste gizarte erronka batzuetara, eta, hala, metatutako ezagutza hori beste espazio batzuetarako baliagarri bihurtu.



Nola kudeatu behar dira hizkuntzak? Eta zeintzuk dira horretarako bideak? Duela hogeitau urte, galdera horien bueltan sortu zen Emun kooperatiba. Debagoieneko eskualdean (Gipuzkoa) kezka nabaria zen enpresetan euskarak zuen presentzia txikiagatik. Enpresa horiek eskatuta, eta egoera iraultzeko asmoz, abian jarri zituzten euskara biziberritzeko lanak.

Ordutik, aldatu egin da testuingurua, eta Nekane Lizarralde lan-kideak aitortu du Euskal Herriko eragile eta enpresen beharrak ere aldatu direla: «Gai berriak daude mahai gainean, eta aurreko esperientzietan ikasitakoa beste erronka sozial batzuetan ere erabilgarri egitea lortu dugu. Orain, parte hartze, kultura eta aniztasun zerbitzuak ere eskaintzen ditugu». Erronkei nola aurre egin, baina, hasieratik finkatu zituzten oinarriak: «Arlo bakoitzak eskatzen duen ezagutza eskuratu ostean ekiten diogu lanari, baina betiere modu berritzaile eta parte hartzaile batean».

Gizartearen beharrak aldatu direnez, beharrezko ikusten du Lizarralde irtenbide berriak eskaintzea eta garai berrietara egokitzea. Ildo horretan, berrikuntza sozialerako proiektua abiatu dute duela gutxi. Taldearen arabera, lan munduak ekarpen handia egin dezake Euskal Herriaren berrikuntza sozialean, eta Lizarralde argi du hori: «Eragile aktibo bihurtu behar du lan munduak justizia sozialean eta aukera berdintasunean». Horretarako, eredu jakin bat proposatu du Emunek.

Enpresako diagnostia egin oste-

an, lau arlotan esku hartzen dute: iraunkortasunean, erantzukizun sozialean, aukera berdintasunean, eta gardentasunean eta demokratizazioan. Gero, ebaluazioa proposatzen dute, modu parte hartzailean, zikloa ongi itxi ahal izateko.

Parte hartzea oinarri.

Emunen ardatz nagusietakoa da parte hartzea, eta berebiziko garrantzia ematen diete modu horretan landutako prozesuei. Emuneko kide Lizarralde lan jardun horren onurak azpimarratu ditu: «Elkarrekin hausnartzeko, berritzeko eta ezagutza partekatze guneak ditugu, eta argi daukagu gune horietan sortzen dela benetako aberastasuna». Talde barruan eta taldetik kanpo sarea osatzeak prozesuak biziarazten dituela uste du, gainera. Horretaz gain, prozesu guztietan bildutako ezagutza partekatzea ezinbestekoa dela uste du: «Lan egiteko moduak berritzea ezinbestekoa da, eta horretarako palanka garrantzitsuenetarikoa da ezagutza kudeatu eta partekatzeari».




Izena: Emun

Jarduerak: Erakundearen, enpresaren eta administrazioaren premiak betetzeko kalitateko aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen ditu euskara eta hizkuntzen kudeaketa, kultura, aniztasun eta parte hartzearen inguruan.

Telefonoa: 943-300 978

Helbide elektronikoa: emun@emun.eus

Webgunea: www.emun.eu



Jakintza sozial eta ekonomikoaren errota

■ Kezka jakin baten bueltan sortu zen Gaindegia 2004an: Euskal Herriko nazio garapenean eragiteko zer dute eragileek esku artean? Galdera horri erantzun nahian, informazioa eta jakintza sortzen dihardute ordutik. Xede nagusia da nazio mailako argazki sozioekonomikoa osatzea eta horrekin naziogintzan eta herrigintzan eragitea.

Hegalei eraginez, osagaiak nahas ditzakete errotek. Horixe da Gaindegia Imanol Esnaola kidearen ustez: «Euskal Herriko naziogintzan eragiteko gai den errota». Duela hamahiru urte sortu zen elkarte, Euskal Herriak haren eremu sozioekonomikoan zituen gabeziak betetzeko asmoz.

«Gure ustez, bazegoen beharra bertako eragile sozioekonomikoek informazioa eskura izan zeza-ten», azaldu du Esnaolak. Horregatik, *think tank* baten gisan egi-ten du lan Gaindegia:

Informazioa bildu, eta eragile, norbanako eta enpresen eskura uzten du, bakoitzak bere arloan naziogintzan eragin dezan. «Euskal Herriari buruz inteligentzia sortzeko erakunde teknikoa eta hornitzailea gara», azaldu du Gaindegia kideak.

Hasieran datu estatistikoak bil-tzen zituzten, baina, urteak joan ahala bi eratako lan berriei heldu diete: batetik, azterketa propioak egiten ditu Gaindegia. Bestetik, behar duen orori informazioa emateko konpromisoa du taldeak. Ia datu guztiak eskuragarri daude plataforman, eta, hortaz, dibulga-zio lana ere egiten dute: «Euskal Herriari buruzko informazioa leku

bakar batean biltzea se-kulakoa da», aitortu du Esnaolak. Datu esta-

titikoez gain, da-tu espa-zialak ere biltzen di-tuzte, ho-rrela lurra-ren gainean

dauden elementu ezberdinen bil-keta eginez.

Esnaolaren esanetan, jasotako jakinduria guztia baliagarria izan da hainbat kazetari, unibertsitate-ko ikerlari eta udalentsat: «Infor-mazioa eskatzen duen horri lagun-tzen diogu hainbat aldagairekin gurutzaketak egiten. Nazio maila-ko begirada osatzeaz gain, ondorio interesgarrietara ere heltzen dira horrela». Uste du Gaindegia lortu duela nazio mailako begirada so-zioekonomikoaren beharra azale-ratzea; izan ere, gero eta eragile gehiagok nahi dute gai horien in-guruko informazioa, eta, gainera, Esnaolak aitortu du hainbat enpre-sa hasiak direla haien arazoak eta haiei aurre egiteko estrategiak Eus-kal Herri mailan pentsatzen.

Nazio garapenak, ordea, ez du esan nahi zazpi lurraldeetan pen-tsatu behar denik beti: «Tokiko garapena ere bada naziogintza», ohartarazi du Esnaolak. Horren adibide, Pirinioetako lurraldeari buruzko lana, baita Arabako kua-drilletan eta Baiona-Donostia ere-muan oinarritutako ikerketak ere.

Ibilbide luzea

Euskal Herriaz aritzen diren iker-keta taldeek bazterketa jasotzen dutela salatu du Esnaolak, eta hori aurrekontuetan ere nabari dela. Gustatuko litzaioke horrelako era-kundeek aitortza handiagoa jaso-ko balute, baina, adierazi du haientzat garrantzitsuena beste eragileekin lankidetzan aritzea dela. Horregatik, urteotan lanean aritu dira BERRIA Taldearekin, Bilgune Feministarekin, Uemare-kin, Udalbiltzarekin eta Eusko Ikaskuntzarekin, esate baterako. Azpimarratu du naziogintza egite-ko unean euskalgintzak izandako garrantzia, eta deia egin du begira-da hori arlo sozioekonomikora ere bideratzeko.



Izena: Gaindegia


Jarduera: uskal Herriaren nazio garapenari emandako talde teknikoa da, irabazi asmorik gabea

Webgunea: www.gaindegia.eus

Telefonoa: 943 304365

Helbide elektronikoa:

gaindegia@gaindegia.eus



Lurraldea ulertzeko modu berri bat

■ GIS teknologiaren bitartez, informazio multzo handiak gorde, landu eta ustiatzen ditu Gislán enpresak. Lurraldeen gaineko azterketak egiten dituzte, eta aholkua eskaintzen die enpresa eta erakundeei haien kudeaketa hobea izan dadin.

Teknologia berriak etengabeko aldaketan dauden garaiotan, ugaritu egin dira informazioa eskuratzeko teknikak, eta, aldi berean, handitu egin da informazio kopurua ere. Lurraldearen gaineko informazioaren kudeaketa ere moldatu egin da, eta egun datu asko bil daitezke hainbat aldagai kontuan harturik: datu geomatikoak, sozioekonomikoak, higiezinekin lotutakoak...

«Erakundeek eta gizarteak geroz eta informazio gehiago jaso eta kudeatu behar dute, eta askotan ez da erraza izaten», azaldu du Imanol Esnaola Gisláneko kideak. Gabezia horri konponbidea eman nahian, Gislán sortu zen duela zortzi urte: GIS teknologiaren bitartez, enpresak eta erakundeak laguntzen dituzte prozesu horretan.

«Aukera asko ematen ditu egun teknologiak, baina, horiek kudeatzen ikasi behar da», ohartarazi du Gisláneko kideak. Horretarako, aholkularitza eskaintzen dute, eta konponbide teknologikoak ematen dizkiete erakunde eta enpresei, baita analisi espazialak egiteko zerbitzua ere. Izan ere, esku artean duten

datu kopurua nola landu erakusten du Gislán. Horrela, hainbat aldagai gurutzatzen dituzte; besteak beste, udal baliabideen *on line* mapak egiteko, geomarketinako azterketak sustatzeko edota kaleko altzarien katalogoak osatzeko ere.

«Gurea ez da Internetarako mapa soil bat», oroitarazi du Esnaolak, «azterketak egiten ditugu ondoren gure bezeroek lur eremu horretan eraldaketa egin dezaten». Adibide gisa, uholdeak aipatu ditu: «Pentsa euri-jasa batek harrapatzen duela auzo bat, eta larrialdietako zerbitzuek auzoa hustu behar dutela. Adinekotik baldin badago, hori jaso behar harko da lehenik; baina, nola jakin ba ote dagoen? Geuk datu horiek bildu eta nola kudeatu erakuts dezakegu». Izan ere, ohartarazi du beharrak momentuan sortzen direla, baina Gislánen egitekoa dela, hain zuzen ere, tresnak eskaintzea aldagaiak une egokian ongi gurutzatzeko.

Erantzukizun soziala

Horregatik uste du Gislán badi-tuelako bestelako balioak: «Irabazi gabeko kooperatiba bat gara, eta helburu komunitarioa dugu. Nahi dugu herritarrek beren buruarekiko duten ezagutza handitzea». Gainera, herri txikietan ahailegin berezia egiten dute puntako teknologia erabili ahal izateko, eta bestelako elkarteekin ere aritzen dira lankidetzan. Besteak beste, tokiko beharrak asetzeko proiektua dute Uemarekin.

Helburua, beraz, software librearen bitartez, tokian tokiko arazo eta beharrei aurre egitea da; bertako enpresek, erakundeek eta herritarrek lurraldearen inguruko informazio antolatua eskura izan dezaten. ■ ■ ■




Izena: Gislán


Jarduera: GIS teknologiaren bitartez lurraldeen gaineko informazioaren bilketa, kudeaketa eta analisia egiten duen kooperatiba.

Webgunea: www.gislan.eus

Helbide elektronikoa:
harremana@gislan.eus

Telefona: 943 304 255





Lau urte bete berri ditu Hekimen enpresak, eta, ordutik hona, bilakaera azkarra izan du. Euskal hedabideen artean aspal-
didanik zegoen behar bat asetze-
ko asmoz sortu zen: euskaraz jar-
duten duten komunikabideen to-
pagune izatea. «Banaka hartuta,
txikiak gara, baina, elkartuta, in-
dar handia dugu», azaldu du Al-
berto Barandiaran Hekimeneko
koordinatzaileak. Horren adie-
razle, egun 150 komunikazio pro-
duktuk, 50 enpresak eta lau lan-
talde handik osatzen dute taldea.

Hedabide handiagoen aldean euskara hutsean ari diren komu-
nikabideek irisgarritasun txikia-
goa duten ustea iraultzea da He-
kimenen erronketako bat. Taldea
osatzen duten kideen kopuruari
erreparatuta, eskaintza zabala
dela uste du Barandiaranek:
«Euskal hedabideek eskaintza
dibertsifikatua daukate, eta, gai-
nera, produktu onak dira».
«Handian» pentsatuta lorpen
handiagoak eskura daitezkeela-
koan dago, gainera: «Gure fun-
tzioa da lotsarik gabe begirada al-
txaraztea. Proiektu txikien elkar-
gune izatea, eta kanpora begirako
leiho bat irekitzea».

Horregatik, administrazioare-
kiko solaskidetza egitea ere bere
gain hartu du Hekimenek. Eus-
kara hutsean ari diren telebista,
aldizkari, egunkari eta bestelako-
en ordezkari gisa dihardu era-
kundeekin: «Askotan kide guz-
tion asmoak bateratzea zaila bada
ere, ederra da etekinak lortzea»,
adierazi du Barandiaranek. Ho-



Juanan Ruiz / Argazki Press

rretarako, ordea, gogotik lan egin
behar izaten dute, eta Hekimene-
ko kideek jakin badakite erronka
handiak dituztela datozen urtee-
tarako: «Komunikabideen kon-
sumo ereduak aldatzen ari da, eta
garrantzitsua izango da elkarla-
nerako esparruak zehaztea. Gai-
nera, politika publiko berriak
adostea ezinbestekoa da».

**Euskalgintzarentza-
ko leihoa.** Euskaratik eta
euskaraz aritzen da Hekimen, eta
horretarako Martin Ugalde kul-
tur parkean lan egitea aukera
ederra dela uste du Barandiaran-
ek: «Euskalgintzan ari diren en-
presentzako espazio naturala da.
Gainera, Hekimenen filosofiare-
kin bat egiten du parkeak; euska-
raz aritzen diren taldeen elkargu-
ne izatea». Parkearentzat ere
proiektua bertan egotea aberas-
garria delakoan dago: «Hedabi-
deen mundu estrategikoa esku-
ragarri edukitzea ere aukera pa-
regabea da enpresentzat». Izan
ere, proiektu komunikatibo txi-
kiek, bat eginda, indar handia bil-
du dute azken urteotan. ■ ■ ■

Txikitik sortutako ekimen handia

■ Euskara hutsean ari diren
hedabideentzako leiho izateko
helburuarekin sortu zen Hekimen, 2012.
urte amaieran. Ordutik, komunikabideen
elkargune eta solaskide gisa lan egin du
proiektuak. Hedabide «handien» aurrean ere
euskaraz zer kontatu badagoela
erakutsi dute.



Izena: Hekimen

Jarduerak:

Euskarazko hedabideen elkarteak


Webgunea:

www.hekimen.eus

Telefona: 617-35 60 63

Helbide elektronikoa:

hekimen@hekimen.eus



Haurrentzako euskarazko Irria

Umeen hezkuntza komunitatean euskarazko proiektu komunikatiborik ez zegoela ikusita, Irria komunitatea sortu zen duela zazpi urte. Egun, hiru ikuskizun dituzte martxan, eta hilero kaleratzen dute 'Irria' aldizkaria; kideen arabera, garrantzitsua da oinarria ongi sendotzea.

Irrien Lagunak elkartea duela zazpi urte sortu zen, haurrentzako proiektu komunikatiboetan zegoen hutsuneari irtenbidea emateko asmoz.

«Erdaldunak dira haurren hezkuntza komunitateko proiektu komunikatibo gehienak», ohartarazi du Nerea Gartzia proiektuko kideak. Gaztetxoek euskarazko erreferenteak behar zituztela ohartu ziren, eta proiektu

tua diseinatzeari ekin zioten Elkarrek, Katxiporretak eta Berria-k elkarlanean. Ordutik, Irria komunitatea eraikitzen ari dira, eta bi proiektu nagusi dituzte esku artean: *Irria* aldizkaria eta ikuskizunak.

Euskarazko erreferenteak sortzea da helburua, baina ez da bakarra: «Euskaldunak dira gure pertsonaia guztiak, baina, horretaz gain, balio aurrerakoak lan-

tzen ditugu horien bitartez», azaldu du Garazi Urrusolo kideak. Katxiporretako Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eraikitako mundu sinbolikoa abiapuntu hartuta, sei pertsonaia nagusik osatzen dute egun Irrien Lagunak proiektua: Tiritatxok, Martinberrek, Largabistak, Marikalanbrek, Ane piratak eta Lagunek.

Guztiek lantzen dituzte elkartasuna, parekidetasuna eta ingurumenaren zainketaren moduko balioak, baina bakoitzak gai bana jorratzen du. Tiritatxok osasunaren inguruko aholkuak ematen ditu; Martinberrekin kulturen sakontzen dute haurrek; Largabistak ingurumenaren sekretuak kontatzen ditu; eta Marikalanbre zientzia kontuez aritzen da. Ane piratak elkartasuna lantzen du, eta Lagunek hari eroalearen lanak egiten ditu.

Proiektu aberatsa

Izan ere, helburua da, euskarazko erreferenteak sortzeaz gain, balio pedagogikoa ere lantzea. Horregatik, Urrusolok aitortu du proiektua «oso potoloa» dela, eta gaur-gaurkoz oinarria sendotzea dela helburua. Dena den, Gartziak uste du Irrien Lagunak proiektuak lortu duela ikusgarritasuna: «Euskarazko proiektu hezitzaile moduan lortu dugu erreferen-

tzialtasuna». Lan hori egiteko, bi ildo jorratzen dituzte: *Irria* aldizkaria eta ikuskizunak.

Hilero argitaratzen dute *Irria* aldizkaria, eta Urrusolak eta Gartziak azpimarratu dute, eduki propioa izateaz gain, garrantzitsua dela beste elkarteekin egiten duten elkarlana: «Beste taldeen parte hartzea beharrezkoa da, eta hori islatzen da aldizkarian». Idazle eta marrazkilariekin ere lan egiten dute hilero, eta horrek duen balio kulturala azpimarratu dute bi kideek. Komunitate izaera ere eman diote harpidetzari: Irrien Lagunak kluba sustatzen dute horrela. Bestalde, hiru ikuskizun dituzte martxan, eta lankideek uste dute Irrien Lagunak klubeko pertsonaiek lortu dutela arrakasta haurren artean. Pauso sendoz, handitzen ari da Irrien Lagunen taldea. ■ ■ ■




Izena: Irrien Lagunak

Jarduera: Haurrentzako euskarazko hezkuntza komunitaterako proiektua. Irakurzaletasuna sustatu eta balio aurrerakoien transmisioa egiteko.

Telefonoa: 943-30 35 72

Webgunea: www.irrienlagunak.eus

Helbide elektronikoa: kudeaketa@irrienlagunak.eus



Sarean barrena ez galtzeko

 Sistema informatikoen diseinua, ezarpena eta mantentze lana eskaintzen ditu IZT kooperatibak 2005etik. Teknologia berrien etengabeko aldaketagatik, IZTk etengabe moldatu behar izan du egoera berrietara; egun, aholkularitza eta informazioaren segurtasuna dira lan ildo nagusiak.



Izena: IZT kooperatiba.

Jarduera: Sistema informatikoen diseinua, inplementazioa eta mantentzea.

Telefonoa: 943-30 43 15

Helbide elektronikoa: info@izt.eus

Webgunea: www.izt.eu

Segundoro milioi bat eta erdi mezu elektroniko bidaltzen dira munduan, 33.000 kontsulta egiten dira bilatzaile nagusietan, 6.000 argazki baino gehiago jartzen dira sarean, eta, gaur egun, enpresa txiki baten datu basea duela hamabost urte edozein multinazionalena baino askoz handiagoa da. Nabarmena da azken bi hamarkadetan teknologia berriek hartutako abiada bizia. Ezinbestekoa da, hortaz, sistema informatiko egokia izatea eta datuen segurtasuna bermatzea. Lan horretan dihardu IZTk; bezeroei konfiantzazko tratua eskaintzen die aplikazioen diseinuan, mantentzean, aholkularitzan eta datuen segurtasunean.

«Sarea ikusi besterik ez dago, hamaika aukera ditugu, baina helburua da norberari ondoen datorkiona diseinatzea», hala azaldu du Juani Lizaso IZTko lan-kideak. Izan ere, uste du bezero bakoitzaren ezaugarri, ohitura, asmo eta nahiak kontuan hartu behar direla, ahalik eta aukera eraginkorrena bilatzeko. Etengabeko ikasketa prozesuan ari da kooperatiba, eta, horregatik, aukera du enpresa eta norbanakoei ere unean uneko joeren berri emateko.


Teknologia berriek eragin

dute, ordea, sarean datu kopuru ikaragarria pilatzea. Horrek artxi-bo zabortegi erraldoi bihurtu ditu posta elektronikoak, ordenagailuak eta bestelako gailu eta sareko biltokiak. Gainera, edonon aurki daiteke munduko edozein herritarri buruzko informazioa.

Horregatik, IZTko kideek ohar-tarazi dute oso garrantzitsua dela datuen kudeaketa egokia egitea: «Batetik, baliagarria ez den informazio pila gordetzen dugu geure gailuetan, eta horrek oztopatu egiten du gure jarduna. Bestetik, zibererasoak areagotu dira azken urteotan». Lizasoren arabera, segundoro hemezortzi ordenagailuk jasaten dute zibereraso bat, eta urtean milioika euro galtzen dira kode maltzurrek eragindako kalteen ondorioz.

Edozein arriskuren aurrean ongi babestuta egotearen garrantziaz ohartarazi du Lizasok: «Neurri egokiak hartuz gero, erasoen eragin negatiboa nabarmen murriztu daiteke». Ezinbestekoa da, hortaz, neurri teknikoak izatea, baina hori bezain garrantzitsua da kontzientzia izatea. Izan ere, sarea handia da, eta teknologia berrien etengabeko aldaketa, geldiezina; IZTk aholkularitza eta segurtasuna eskaintzen ditu bertan ez galtzeko. ■ ■ ■





Etengabeko gogoeta eta eztabaida

■ Euskarazko kultura aldizkaria da 'Jakín'. Frankismo betean, Arantzazun sortu zen, 1956an. Ordutik, bilakaera handia izan du aldizkariak, eta, egun, bi hilabete behin argitaratzen dute. Eskafandra eta Aleka liburu egitasmoak ere abian dituzte.

Ibilbide luzea du Jakinek. 60 urtetik gora daramatza euskara, kultura eta herrigintza uztartzen. Ardatz horien artean gogoe-tan aritu dira sortzetik, baina unean uneko gertaerei bizkar eman gabe. Euskara kultur hizkuntza gisa trebatzea eta herrigintzaren arteko orekari eustea; tentsio horretan mugitu da sei hamarkadaz Jakín. Tartean, debekuei aurre egin behar izan die, antolaketa ereduak aldatu, eta unean uneko joeretara moldatu da.

Ikasle talde batek sortu zuen Jakín, Arantzazun, 1956an. Frankismo garaia zen, eta, beraz, sortzea ez zen xamurra izan. Aldizkariaren helburuak argiak ziren hasieratik, euskara eta kultura uztartzea, eta orduko zentsurarekin talka egin zuen horrek segituan: 1961ean, debeku administratiboak ezarri zioten, eta 1969an, berriz, Madrilgo Gobernuak berak debekatu zuen aldizkaria. Franco hil ostean heldu zioten berriz argitaratzeari, eta, ordutik, egitura antzekoa izan du taldeak. Garai hartan finkatu zituzten aldizkariaren ildoak: «Kultur aldizkaria da *Jakín*. Hainbat ikuspegitik begiratuta erabiliko ditugu sailak eta eremuak. Kultura, pentsamendu eta saio-aldizkari kritikoa izanen da *Jakín*».

Kritikotasuna da *Jakín* aldizkariaren oinarri nagusietako bat. Dibulgazio hutsetik harago eragin nahi du taldeak, baina akademi-

zismoan erori gabe; asmoa baita kulturgintzaren eta herrigintzaren arteko harremana indartzea. Era berean, euskarari kultur estatus praktikoa aitortzea izan da aldizkariaren helburuetako bat: «Euskara kultur hizkuntza gisa trebatzea, alegia». 2014an, erronka horren lekukoa eman zion ordura arteko zuzendari Joan Mari Torrealdai Lorea Agirre zuzendari berriari, eta ordutik lanean ari dira gogoetarako bidea irekitzen euskal gizartearen bizirik dauden hamaika auziri.

Liburu bilduma pare bat ere badu Jakinek. Joan den abenduan kaleratu zuten Eskafandra liburu bildumako lehen zenbakia. Pentsamendu feministari eskainitako sorta da, euskarari eta feminismoari «arnasgune» bat eta «eragingune» bat eskaintzeko asmoz sortua, Elkarrekin batera. Ordutik, biliburu kaleratu dituzte, pentsamendu feministan ezagunak diren Angela Davisen eta Virginie Despentesen testuak euskarara ekarritak: *Generoa, arraza eta klasea* (Danele Sarriugartek itzulua) eta *King-Kong teoria* (Itziar Diaz de Ultzurrunek itzulua).

Aleka bilduman, berriz, Elkarreko, *Berria* egunkariko eta Jakín-eko kideek bat egin dute, eta Euskal Herriko zein nazioarteko pil-pileko gaiak jorratzen dituzte kroniken bitartez. Gaur-gaurkoz, lau liburu argitaratu dira: euskararen egoeraren ingurukoa bata, Nafarroako «aldaketaren aroa» delakoaren ingurukoa bestea, Donald Trump presidentetzara nola iritsi den aztertzen duena, eta Ekialde Hurbileko auzia ulertzeko gakoak eskaintzen dituen azkena. Den-denak, Jakinek hasieratik jasotako erronkaren ildoan: gaurkotasuneko gaiak modu kritiko batean eta euskaraz lantzea. ■ ■ ■




Izena: Jakín

Jarduera: Euskalgintza eta kulturgintza sustatu eta hedatzeko plaza eta eragilea da Jakín Fundazioa

Telefonoa: 943-21 80 92

Helbide elektronikoa: jakin@jakin.eus

Webgunea: www.jakin.eus



Handira egin zuen

apustua Kontseiluak 1998an sortu zenean. Hilabeteetan isilean egindako lanak eztanda egin zuen urte hartako abenduaren 26an. Euskal Herriko bost estadiotan jende andana bildu zen *Bai euskarari* lelopean. Handira jotzen jarraitu du ordutik Kontseiluak; izan ere, horixe da haren helburua: euskararen normalizazioarako lanean ari diren elkarteetan topagune izan eta ikuspegi zabalgaz eragitea.

Egindako lana ere ez da txikia, eta Saioa Rodriguez Kontseiluko langileak oroitarazi du hori: «Ia hogeitertan handiak izan dira egindako urratsak, eta zenbait mugarri ere izan ditugu». Horietan lehena da Bai Euskararekin batera kirol guneetan egindako mobilizazioa, baina, ordutik, izan dira gehiago. Besteak beste, gogoa dituzte Rodriguezek *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren ostean antolatu zituzten mobilizazioak, baita euskarak Nafarroan zuen egoera salatzeako 2010ean antolatutako manifestazio jendetsua ere: «Horien bitartez ikus dezakegu Kontseiluak aktibazio sozialean betetzen duen funtzioa». Era berean, arrakastatsuak dira *Bai euskarari* eta *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainak.

Kaleko aktibazioaz gain, ordea, Kontseiluaren helburuetako bat da herritarren, herri eragileen eta administrazioaren artean zubi lana egitea, eta, horregatik, hizkuntza politikak hobetzeko bidean elkarrekin egindako lana azpimarratu du Rodriguezek: «Garai konplikatuetan zirenean lortu genuen akordio soziopolitiko bat euskalgintzako zenbait sektorek bizi zuten jazarpena salatzeako». Hainbat



Izena:

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua
Jarduera: Euskarak garapen osoa izatea helburu duten eta arlo desberdinetan lan egiten duten erakundearen bilgunea da.

Telefonoa: 943-59 12 00

Helbide elektronikoa:

kontseilua@kontseilua.eus

Webgunea: www.kontseilua.eus



udalekin, esaterako, hizkuntza politika neurtzeko tresna garatu dute, hizkuntza politika berri eragingarriak sortzeko bidean.

Erronkak ere, handi.

Handiak izan dira lorpenak, baina handiak dira erronkak, eta, horregatik, Euskal Herriko hiru lurralde administrazioetan dihardu oraindik ere Kontseiluak. Lau proiektu dituzte gaur egun esku artean: Euskaragileak, enpresaritzaren munduan aritzen diren eragileekin sortua; Nafarroan euskararen egoera iraultzeko programa berri bat; EAE Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza politika aldatzea; eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Rodriguezek aitortu du ez dela lan erraza, eta antolatzeako moduan dagoela gakoa: «Batzarra egiten dugu noizean behin, hainbat arlotan aritzen diren eragileak Kontseiluan bildu eta proposamenak egiteko. Horrela, iparrorratz komun bat defini dezakegu». Izan ere, euskararen normalizazioaren bide luzean, Kontseiluak pausoak ematen jarraitzen du. ■ ■ ■

Euskararen normalizazioa iparrorratz

■ Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua duela ia bi hamarkada sortu zen, euskalgintzan eta euskararen normalizazioarako bidean lanean jarduten zuten hainbat eragileren elkargune izateko asmoz. Lan horretan dihardu Kontseiluak Euskal Herriko eragile, administrazio eta enpresekin.



Lanku

Bertsolaritzaren hamaika ertzak

Bertsolaritzaren jatorrizko izaera mantentzearen eta berrikuntza eta transmisioa bermatzearen artean dihardu lanean Lankuk. Bertsozale Elkarteak sortu zuen, 2003an, bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko asmoz. Egun, 350 artistarekin ari dira elkarlanean.

Mendeetako ohitura iza-nagatik, bertsolaritzak jakin du egungo egoerara moldatzen. Ezagunak dira bertso saio musika-tuak, saio bereziak, bertso-literatura emanaldiak... Txapelketek ere badute arrakasta: aurtengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarre-rak bi hilabete lehenago amaitu dira. Horiek kudeatzeko, ordea, lana gogotik egin behar da, eta 2003an erabaki zuen Bertsozale Elkarteak horretan arituko zen enpresa bat sortzea. Ordutik, hamaika saio antolatu ditu Lankuk.

«Bertsolaritzaren ulkerak aldatu da», azaldu du Aitor Irigoien Lankuko lankideak, «garai batean askoz ere itxiagoa zen mundu hori. Gaur egun, aberastasuna, eraldaketa eta berrikuntza nabari da saio eta bertso joeretan». Izan ere, Lankuk apustua egin du tradizioa beste hamaika txokotara hurbiltzeko asmoz. Besteak beste, esku artean dute eremu erdal-dunetan bertso saio bereziak antolatzeko proiektua.

Izan ere, abesteko moldea aldatu den heinean publikoa bera ere aldatu dela aitortu du Irigoienek: «Gaur egun, ikuslea gaztea da, eta, genero ikuspegitik erre-paratuta ere, askoz emakume gehiago biltzen dira plazara». Horrek bestelako eskaintzak egi-teko aukera ere ireki die.

Proiektuen aberastasu- Eraldaketa eta tradizioaren biziberritzea ardatz, hainbat eginbehar ditu Lankuk. Besteak beste, bertso saio arruntak antolatzen dituzte, baita emanaldi bereziak ere. Gainera, bertso eskoletarako eta elkarteentzako argi-

talpenak ere egiten dituzte. Autore eskubideak bermatzeko proiektua abiatu berri dute, eta, gainera, produkzio lanez ere arduratzen dira, hala nola txapelketetakoez.


Hamaika leiho dauzka irekita Lankuk, eta bertsolariek Lankuko atea irekia dutela oroitarazi du: «Gure helburua da bertsolariekin harremana egitea, eta horien lana ahalik eta gehien erraztea». Heine batean helburua lortu dutela aitortu du, baina azaldu du abeslari gazteengana heltzea dela erronka. Lan horri ekiteko, joan den urtean Lanku Beka estreina-tu zuten. Beatriz Egizabal eta Ane Labakaren *Erradikalak* gara saioak irabazi zuen diru laguntza, eta, datorren urtean, abian jarriko dute berriz proiektuak aurkezteko aukera.

Gainera, *Arin-adin* zahar egoi-tzetan antolatzen duten saioa eta Jon Maiaren *Berriak jaio ginen* li-burua ere badituzte esku artean, baita Andoni Egañaren saio berezi bat ere, berehala aurkeztuko dena. Sustraiak non diren ahaztu gabe, bertsolaritzan lanean jar-duteko bideak jorratzen dituzte; argi du Irigoienek: «Aurreko iza-era galdu gabe, transmisioan eta balioetan sakontzea da gure as-moa».



Jarduera: Bertsoa oinarri hartuta, edozein kultur ekitaldi sortzeko eta antolatzeko baliabideen kudeaketa (produkzioa, marketina, diseinua, autore eskubideak...) **Telefonoa:** 943-26 07 55 – 675-71 64 72 **Helbide elektronikoa:** laku@lanku.eus **Webgunea:** www.lanku.eus





Inprentako inurri lana

Sortzen direnetik irakurleak esku artean edukitzera arte, bidaia luzea egiten dute orriek inprimategian. Leitzaran Grafikak enpresak prozesu osoa ikuskatzeko aukera ematen dio sortzaileari. Amaierako emaitzan ekoizpenak duen garrantzia azpimarratu dute.

Euskarri digitalean

heltzen dira kartelak, nobelak, testuliburuak... Leitzaran Grafikak inprimategiko bulegora. Dotorre josita eta inprimatuta heltzen dira hartzailearengana. Gaur egun, edozein tokitan inprimatu daitezke edukiak Iñigo Illarremendi Leitzaraneko langilearen ustez, baina, enpresa horrek balio erantsia eskaintzen die sortzaile eta hartzaileei: inprentako inurri lana ezagutzeko aukera dute bertatik bertara.

«Ez gara ekoizpen enpresa bat soilik, zerbitzua ere eskaintzen dugu» azaldu du Illarremendik. Izan ere, eskaera bakoitzak dituen berezitasunei erreparatzen die Leitzaranek. Uste du azken urteotan paperak garrantzia galdu duela teknologia berrien ondorioz, eta, horregatik, egindako lanari goxotasunez heltzen diote: «Kalitatea bermatu nahi dugu,

gertutasuna erakutsi eta epeak bete». Horiek dira, haren ustez, inprenta batek gaur egun eduki beharreko balioak, baina, beharrezkoa da puntako teknologia ere: «Tecnologia etengabe ari da aldatzen, eta gure moduko tailerretan ere puntako makinak edukitzea garrantzitsua da».

Horregatik, bi eratako lanak egiten dituzte; batetik, inpresio digitalekin egiten dute lana: «Batik bat berrargitalpenekin eta edizio txikiekin». Bestalde, ohiko sistema erabiltzen dute, *offset*-a, alegia.

Tailerrean ongi antolatutako kate bidezko lanean artisauen eran josten dituzte orriak. Sobekarakin moztu, berrantolatu eta ilaran jartzen dituzte liburuak, azken ukituak eman eta azala jartzeko. Ibilbide luzea eginda, kuttetan gordetzen dituzte liburuak, aldizkariak, eskuorriak eta bestelako euskarriak. Hiztegiak eta bidaia liburuak geroz eta gutxiago egiten dituztela aitortu du Illarremendik, baina, oraindik ere, eskaria handia da: «Gaur egun ez du zentzu handirik gailu teknologiko txikietan bildu dezakegun informazioa liburu pisutsuetan gordetzea. Hala ere, lana badugu». Horren erakusle da ekoizpenaren laurdena Frantziara bidaltzen dutela.

Papera eta teknologia lehian daude, baina, oraindik inprentek bide luzea dute egiteko, Illarremendiren ustez: «Paperak zein etorkizun duen? Ezin jakin, argi dugu apurka beheranzko joera nabari dela», adierazi du Illarremendik ekoizpen prozesua erakutsi bitartean, «ordura arte, ordea, lanean arituko gara egun bezala». Izan ere, oraingoz makinek ez dute eguneko ordu bakarrean ere deskantsua hartzen. ■ ■ ■



Izena: Leitzaran Grafikak


Jarduera: Liburu, aldizkari, publizitate liburuxken diseinua, inprimaketa eta enkoadernaketa.

Telefonoa: 943303510

Helbide elektronikoa:

grafikak@leitzaran.eus

Webgunea: www.leitzaran.eus



Zuzeneko musikarentzako leihoa

■ Musika eskaintza zabala da Euskal Herrian, baina ekitaldiak bilduko zituen atari baten falta sumatzen zuten musikaren munduan aritzen ziren zenbait lagunek. Hutsune hori bete nahian, Musikazuzenear gunea ireki zuten 2010ean, zuzeneko musika sostengatzeko asmoz.



Izena: Musikazuzenean

Jarduera: Euskal Herriko zuzeneko emanaldien ispilua eta bozgorailua izateko sortutako web ataria

Telefonoa: 658-72 25 05

Helbide elektronikoa: info@musikazuzenean.com

Webgunea: www.musikazuzenean.com

Euskal Herriko zuzeneko musika eskaintza biltzeko asmoz sortu zen Musikazuzenean ataria, 2010ean. Horixe zen hasierako helburua: bizi-bizi zegoen sorkuntzaren berri ematea webgune baten bitartez. Ordutik, garatu egin da proiektua, eta jarduera berriak egiten dituzte orain. Besteak beste, telebista saioa dute Hamaika telebistan, kontzertu akustikoak eskaintzen dituzte, eta Durangoko Azokan standa jartzen dute. Proiektuko kide Koldo Otamendik azpimarratu du saretik harago komunitatea egiten diharduela proiektuak sortzeko balioak atzean utzi gabe: «Egun, musika munduan egiten dena islatzea eta hedatzea da gure xede nagusia».

«Euskal Herria leku ederra da zuzeneko musika maite dugu-nontzat», aitortu du Otamendik. Izan ere, hamaika aukera daude musika entzuteko gaztetxeetan, aretoetan, kultur etxeetan eta tabernetan. Musikazuzenean-eko kidearen arabera, atzerriko taldeak ere maiz etortzen dira Euskal Herrira, eta astean zehar hainbat kontzertuz gozatzeko aukera badago, nahi izanez gero. Horregatik, ez du zalantzarik: bizirik dago sorkuntza Euskal Herrian; alta, aitortu du falta dena ikusleria dela sarri.

Eskaintza aberatsa izan arren, Otamendik uste du gehiegizko informazioa dagoela sarean, eta, hortaz, informazio txukuna eta argia topatzea kosta egiten dela sarri. Kontzertuen eta musikaren inguruko albisteak biltzen ditu Musikazuzenean-ek, entzuleei

eskura uzteko informazio ahalik eta eguneratuena eta argiena.

Dena den, Otamendik gogorarazi du proiektua ez dela agenda hutsa: «Herri ekinbide gisa sortu ginen, eta, horregatik, garrantzitsua da komunitatea sortzea».


Topagune eta ispilu.

Komunitatea, beraz, musikazaleek, musika taldeek eta musika eragileek osatzen dute, eta horrela sostengatzen da Musikazuzenean; izan ere, ez du diru laguntzarik jasotzen, eta web atarian ez dute iragarkirik. Agerikoa da talde izaera baduela proiektuak, eta aberastasun hori nabarmena da, besteak beste, Durangoko Azokako plazan. Izan ere, talde txiki eta handiek diskoak saltzeko lekua dute egitasmoaren standean.

«Guk ez dugu ezberdintasunik egiten talde txiki eta handien artean», azpimarratu du Otamendik. Uste du guztiek eduki behariko lituzketela aukera berak, eta, horregatik, balio bera ematen diete talde guztiei Musikazuzenean-en. Euskal Herrian musika aukera «askotarikoa eta koloretsua» dagoela uste du Otamendik, eta, beraz, ez zaio egokia iruditzen talde txikien eta handien arteko bereizketa egitea: «Ikusleek erabakitzen dute zein talde ikustera joan nahi duten». Informazio hori errazteko, topagune eta ispilu lanak egiten ditu Musikazuzenean web atariak: «Guk mahai gainean musika menua jartzen dugu, eta ikusleek erabakitzen dute zein aukeratu».

Gari Garaialde /Argazki Press





Jon Urbe / Argazki Press



Ikus-entzunezkoen aroan,

esperientziaren garrantzia

■ Euskal Herriko arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko asmoz lanean dihardu Bai Euskarari elkarteak, enpresa, saltoki eta bestelako eragileekin. Elkarteko kideen ustez, hizkuntzaren normalizaziorako beharrezkoa da enpresen eremuan ere jardutea. Lan horretan, hamarkada bete du taldeak.

Gaur egun edonork

du aukera bideoak grabatzeko, ikus-entzunezko txiki bat egiteko eta hori sarean jartzeko. Sakelako telefonoek badituzte hori egin ahal izateko beharrezko kamerak eta aplikazioak. Esperientzia, ordea, ez du edonork, eta kalitatezko ekoizpenak eskaintzen ditu Pixel enpresak.

Komunikabideen munduan lanean zebiltzan hainbat kidek ikusi zuten Pixel enpresa sortzeko aukera. Aurretik bazuten eskarmentua eta 2005ean eman zuten pausoa. Ordutik hainbat lan egin dituzte ikus-entzunezkoen arloan; batzuetan, kanpoko enprekin lanean; bestetan, ekoizpen propioa egiten.

Mota askotako zerbitzuak eskaintzen ditu Pixelek. Hala nola beste ekoiztetxe batzuekin elkarlanean aritzen dira, enpre-

sentzako bideo korporatiboak egiten dituzte, aireko grabaketak egiten dituzte droneekin, materiala alokatzen dute, eta hainbat telebistarentzako lana ere egin izan dute. «Besteak beste, EITBrekin lanean jardun dugu kiroleko saioetan, su artifizialak grabatzeko, danborrada eta halako ekitaldien bideoak egiteko...», azaldu du Mirari Larrañaga Pixeleko lankidea.

Ekoizpen propioa ere, egiten ute, ordea, eta sona handiko dokumentalak ekoitzi dituzte etxean. Besteak beste, *Zura*, *Gazta zati bat* eta *Sagardoa bidegile* lanak haienak dira. Bestalde, joan den urtean Donostia 2016 egitasmoaren barruan, saria eskuratu zuten *La Capsula* izeneko saio batengatik. Europako balioei eta kulturari buruzko telebista saio bat proposatzea zen erronka, eta Pixelek irabazi zuten lehiaketa.

«Urteetako esperientziak ematen digu beste ikuspuntu bat», azaldu du Naiara Olaia lankideak, «edozeinek egin dezake bideo bat, bai, baina kalitatea eskarmentuaren bitartez irabazten dugu». Hori eskaini dezake Pixelek, baita aholkularitza ere.

Hainbat enpresa eta eragile joaten dira haiengana ikus-entzunezko bat egiteko asmoarekin, eta horien beharrak eza-gutzearen eta ulertzearen garrantzia azpimarratu dute bi lankideek. Izan ere, ikus-entzunezkoen aroan edonork bideo-gintzan aritzeko aukera badu ere, beharrezkoa da kalitatezko lanak egiteko azpiegitura eta ezagutza egokia. ■ ■ ■



Izena: Pixel

Jarduera: Ikus-entzunezko ekoizpena, materialaren alokairua, kamera anitzeko ekitaldiak eta airezko irudiak.

Telefonoa: 943593409

Webgunea: www.pixel.eus

Helbide elektronikoa:

info@pixel.eus

Idoia Zabaleta / Argazki Press



Euskal eskola publiko berria sortzen

■ Hezkuntza komunitatearentzako tresna baliagarria izateko asmoz sortu zen Sortzen elkarte. Hezitzaileen, familien eta langileen sareak eginez, Euskal Eskola Publiko Berria dute jomuga, eta lanean dihardute helburua lortzeko: Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa izatea.

«**Gaur egungo** hezkuntza ereduak hutsune eta gabezia izugarriak ditu». Horixe da Sortzen elkartearen salaketa. D ereduko eskola publikoetako hezkuntza komunitateko kideen sarea da elkarte, eta arazo horri aurre egiteko lanean dihardu. Ez da, ordea, salaketara mugatzen. Aitzitik, eredu berria proposatu eta eraikitzen ari dira Sortzen-eko kideak: Euskal Eskola Publiko Berria.

Baina, nolakoa behar du halako hezkuntza ereduak? Taldekideek argi dute: euskalduna, autonomia, langileen iraunkortasuna bermatzen duena, demokratikoa, kalitatezkoa eta doakoa. Ez da edonolako erronka, eta, horregatik, tresna eraginkorrek eskaini nahi ditu Sortzen-ek, hezkuntza komunitatea antolatzeko, arazoei aurre egiteko eta hezkuntza eraldatzeko. Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa behar dela aldarrikatzen du taldeak, baina, norabidea galdu gabe, ez dute albo batera uzten urratsez-urrats egin beharreko lana.

Besteak beste, informatikaren

eta jolas ez-sexisten inguruko hitzaldiak eskaintzen dituzte, eta gainera, urteko plangintza osatzen dute, harriz harri eredu berria eraikitzeko. Hezkuntza sistemak hamaika helduleku dituela aitortu dute kideek, baina, aurtengoan, bi ildo nagusi jorratuko dituzte: hezkuntza eredu eta sistema propioa.

Euskara eta LOMCE.

Aurten landuko duten ildoetako bat da euskararen normalizazioarena. Sortzen-ek baditu hainbat egitasmo hezkuntzari bultzada emateko, eta gainera, «Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko alternatiba» izeneko proiektu bat abian dute jada. Lau urtez Dimako herri eskolan (Bizkaia) eta Donostiako Egia auzoko Aitor ikastolan (Gipuzkoa) proba pilotua egin ostean, Euskal Herriko edozein ikastetxetan hezkuntza proiektua garatzeko dokumentua aurkeztuko dute. Bestalde, egitasmoa abiatuko dute, Nafarroa osoan euskaren ofizialtasuna aldarrikatzeko.

Zer eraiki badu Sortzen-ek, baina, gaur gaurkoz LOMCE eredu bat abian dagoena Hego Euskal Herrian. Horregatik, errebalidei planto egiteko eta LOMCE ez aplikatzeko proposamen berriak ere lantzen ari da taldea. Uste dute gaurko dela proiektu berriak egitea eta hezkuntza akordioak lortzeko urratsak egitea.

Aldarrikapenerako tartea ere badute Sortzen-ekoek, eta aurten hiru zita garrantzitsu ezarri dituzte jada: Sakanako festa, eremu euskaldunetako Besarkatu egitasmoa, eta maiatzaren 20an Iruñean antolatutako festa nazionala. Izan ere, bidea nekeza bada, Sortzen-ek badu zer ospatu: Euskal Eskola Publiko Berria sortzeko bidean pausoak ematea. ■ ■ ■



Izena: Sortzen elkarte


Jarduerak: D ereduko eskola publikoetako hezkuntza komunitateko kideen sarea

Telefona: 943 303504

Webgunea: www.sortzen.eus

Helbide elektronikoa:

sortzen@sortzen.eus



Euskaraz ikertu, euskaraz eragin

 Euskararen garapen sozialaren ikergunea da Soziolinguistika Klusterra. Metodo zientifikoaren bidez, Euskal Herrian euskarak duen bilakaeraren inguruko ezagutza sortu eta metatzen du taldeak. Jakintza horretatik abiatuta, hizkuntzaren berrikuntzan eragitea du xede.



Izena: Soziolinguistika Klusterra

Jarduera: euskararen garapen sozialaren ikergune nagusia. Ezagutza soziolinguistikoa sortzen eta kudeatzen du euskara biziberritzeko prozesuan.

Telefonoa: 943-592 556

Helbide elektronikoa: kluster@soziolinguistika.eus

Webgunea: www.soziolinguistika.eus

Zientifikotasuna,

elkarlana eta gizarte konpromisoa. Hiru balio horiek oinarrian, euskararen inguruko ikerketak egin eta ezagutza hori hedatzen du Soziologia Klusterrak 2004az geroztik. Ez da lan makala, helburua baita euskara biziberritzeko dinamikak abian jarri eta hizkuntzaren garapen sozialean eragitea. Horregatik, taldekideek diote Klusterraren apustua dela modu berriak asmatzea euskararen inguruan ikertzeko eta hori kudeatzeko: «Ikertzea garrantzitsua da, bai, baina betiere eragiteko asmoa izan behar dugu, metodo zientifikoa ardatz hartuta», azaldu du Asier Basurto ikerlariak.

Lan horretan, ikertaldeak kide ugari bildu ditu. Horixe esan nahi baitu *kluster* hitzak: multzoa. Hamaika txokotatik etorritako arituak eta adituak elkartzen dira bertan: unibertsitateko ikerlariak, euskalgintzako enpresak, herri eragileak eta erakunde publikoak. «Hori da gakoa, euskaraz eragin ahal izateko arlo horiek biltzea», ihardetsi du Basurtok. Gainera, bederatzi lagun aritzen dira eginkizun horretan buru-belarri Martin Ugaldeko bulegoan.


«Hasieran ia inork ez zekien

zer zen Klusterra, ezta izen hori nondik zetorren ere», azaldu du ikerlariak. Urteak joan ahala, proiektu berri eta sendoak sortu ditu ikerketa taldeak gainontzeko eragileekin, eta erreferentzialtasuna lortu du gizartean, Basurtoren ustez: «Jendeak euskararen inguruko ikerketa fidagarriekin lotu du Soziologia Klusterra».

Haren iritziz, proiektu askotako zuzendariak unibertsitateko irakasle izateak eragina du horretan. Bada, gainera, Euskal Herrian eza-guna den ikerketa garrantzitsua bat: hizkuntzen kale erabileren neurketa. Lehen ikerketa 1989an egin zen, baina Klusterrak bere gain hartu du azterketa.

Horretaz gain, hamaika jardueraren egiten ditu taldeak. Aipagarria da, esaterako, BAT soziolinguistika aldizkaria. Urteetan pilatutako ezagutza dibulgaratzea da argitalpen horren xedea. Gainera, euskal soziolinguistika jardunaldiak egiten dituzte urtero, eta, aurtien, hilaren 22an izango dira, Donostian. Uemarekin lankidetzan antolatu dituzte jardunaldiak, eta arnasgu-neak izango dira ardatza. Izan ere, pil-pilean dagoen gaia da, eta hori da Klusterraren erronketako bat: ezagutzaren bitartez euskararen biziberritzea eta garapenean eragitea. ■ ■ ■





Gazteen topagunea eta amarauna

■ Gazte mugimenduak sarean presentzia edukitzeko sortu zen Topatu gazteen komunikazio proiektua. Hainbat kide eta eragileren elkarlanari esker, egun, eztabaidarako, informazioa zabaltzeko eta hausnarketarako espazioa bilakatu da.

Txikia izanagatik, hedapen handia du Topatu gazteen komunikazio proiektuak. Martin Ugalden (Andoain, Gipuzkoa) du egoitza, baina, erredakzioko kideen arabera, bertatik kanpoko lanik gabe ezinezkoa litzateke proiektuarekin segitzea: «Topatu parte hartzailea eta irekia izan dadin nahi dugu. Eskualdeetako eta herrialdeetako lantalderik gabe, ezingo genuke lan egin». Izan ere, gazte mugimenduaren bozgorailu izateko jaio zen, eta sarean gazteen arteko amarauna osatzea dute helburu.

Elkarlana da Topaturen balio nagusietako bat: «Gazte mugimendutik sortu zen proiektua, eta gazte mugimenduarentzat egiten dugu lan», azaldu du Madi Ane Txoperena Iribarren kideak. Horregatik, harremanetan daude hamaika gazte eragilerekin: «Sortu berri diren proiektuak sustatzeko asmoz, albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak egiten ditugu». Norbanakoek ere badute lekua, eta, horregatik, gazte blogarientzako espazioa atondu berri dute; helburua da gazteei norbanako gisa ere ahotsa ematea. «Eztabaida sustatzea da gure beste helburuetako bat»,

azpimarratu du Garazi Conde Orubek. Horregatik, *Izarapeko aholkua* sexualitatearen inguruko eztabaida gunea ireki dute webgunean: «Gazteok geure artean sexuaz modu askean hitz egiteko gunea izatea nahi dugu».

Sortutako amaraunak bi proiektu abian jartzeko aukera eman die: Topatu sare eta Gazte Telebista. Bi ideiek Gazteraiki topaketetan izan zuten sorrera, eta hilabeteotan horiei forma ematen aritu dira: «Epe laburrean telebista martxan jartzea espero dugu», adierazi dute Condek eta Txoperenak. Lau saio izango ditu: mahai inguruena, umorezko albistegia, musikari gazteei buruzkoa eta fikziozko telesaila. Erronka handia izanda ere, ilusioz heldu diote lanari Topatukoek: «Elkarlana eta sare indartzea izango da gakoa».



Izena: Topatu

Jarduera: Euskal Herriko Gazteen Komunikazio Proiektua

Helbide elektronikoa: topatu@gmail.com

Webgunea: www.topatu.eus



KULTURA EUSKARA HERRIAREN GEROA



elkar
fundazioa


DOBLE-A®

www.doble-a.com

Biribilgarriak




Bertikalak



Tolesdunak




Silujeteak



Gaueko eta eguneko twistak





Panel japoniarra



Egurrezko veneziarrak



Fazeteak



Bioklimatikoak



Kofreak



Beirazko errezelak



Pergolak



Cortinas Errezelak

Toldos Olanak

T. 943-66 70 03

www.cortinasytoldosdoblea.es
comercial@doble-a.com

Amute 8, behe, C - (aireportuaren parean) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)